



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

LEHEN HEZKUNTZAN ISTORIOAK

TALDEAN SORTZEN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Mayordomo Irigoyen, Imanol

ZUZENDARIA: Rodríguez Miñambres, Paloma

2020

LABURPENA

(EU) Gradu amaierako lan honen abiapuntua Lehen Hezkuntzan literatura tailerrak nola jorratu izan da eta honen gainean lanketa bat burutzeko *Lehen Hezkuntzak istorioak taldean sortzen* izena eman zaion seigarren mailako ikasleentzako prestatua izan den sekuentzia didaktiko bat diseinatu eta aurrera eraman da. Horretarako, lan honetan zehar proiektu didaktiko honen xehetasunak eta honen bidez lortutako emaitzak plazaratuko dira.

Hitz gakoak: Sormena, Lehen Hezkuntza, ikaskuntza kooperatiboa, istorioak.

(ES) El punto de partida de este trabajo de fin de grado ha sido el cómo trabajar la literatura mediante talleres educativos en la educación básica. Para ello, se ha llevado a cabo una secuencia didáctica diseñado para alumnos de sexto de primaria denominado *creando historias en grupos en Educación Primaria*. Los detalles de este proyecto educativo y los resultados obtenidos a través de él se publicarán en este trabajo.

Palabras clave: Creatividad, Educación Primaria, aprendizaje cooperativo, historias.

(EN) The starting point of this degree final project has been how to work on literature through educational workshops in primary education. For this, a didactic sequence designed for sixth grade students called *creating stories in groups in Primary School* has been carried out. Furthermore, the details of this educational project and the results obtained through it will be published in these next pages.

Key words: Creativity, Primary Education, cooperative learning, stories.

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	1
2.- PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA	1
3.- HELBURUAK	3
3.1.- OROKORRA	3
3.2.- ESPEZIFIKOAK	3
3.3.- HIPOTESIAK	3
4.- MARKO TEORIKOA	4
4.1.- SORMENAREN KONTZEPTUALIZAZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK	4
4.2.- SORMENA ETA ADIMENAREN ARTEKO LOTURA	9
4.3.- SORMENAREN GARRANTZIA LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPAN	11
4.4.- AUTORE EZBERDINEN PROPOSAMENAK SORMENA LEHEN HEZKUNTZAN LANTZEKO	15
4.5.- TALDE LANAREN GARRANTZIA	16
5.- ESKU HARTZEA	19
5.1.- SEKUENTZIA DIDAKTIKOA	19
5.2.- METODOLOGIA	22
5.3.- EBALUAZIOA	22
6.- EMAITZAK	23
7.- ONDORIOAK	33
8.- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	36
9.- BIBLIOGRAFIA	37
10.- ERANSKINAK	42

1.- SARRERA

Haurtzarotik sormenarekin erlazionatzen den guztia oso garrantzitsua da eta pertsonen garapen kognitibo, sozial eta emozionalari erreparatzen badiogu alderdi hauek ikastetxeetan lantzea ezinbestekoak dira. Sormenaren inguruan eta hau nola landu plazaratu duten hainbat autore aztertu eta hauen ikuspuntua eta metodologiaren inguruan hausnartu ondoren Lehen Hezkuntzako etapan, gehiago zehazteko Berako eskola publikoko seigarren mailako ikasleekin, sormena lantzeko unitate didaktiko bat prestatu da gradu amaierako lan honetan.

Proiektu honen bitartez ikasleak talde lanean arituz sormena jorratzeko estrategia metodologiko bat bideratu eta aurrera eraman da, helburu nagusia ikasleak beraien artean taldean kohesionaturik lan eginez sormena landu daitekeen egiaztatzea izan da. Horretarako istorioak sortzeko jarduera ezberdinez baliatu da.

Ikerketa honekin ondorioztatu da Berako ikastetxeko ikasleek literaturarekiko zaletasun handiegia ez daukatela eta istorioak idazterako orduan, bakarka eta taldeka burututakoak alderatzean antzeman da bigarren metodologia horrekin ikasleek istorioak interes gehiagorekin, lanketa handiagoarekin eta istorio konplexuagoak sortu dituztela.

2.- PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko urteetan neska-mutilekin sormena lantzeko baliabide, estrategia eta metodologia ezberdinak plazaratu dira baina ez dakigu zergatik haur hauek urteak aurrera joan ahala sormena galtzen joaten diren. Sormenari ikastetxeetan garrantzi eta lanketa handiagoa eman behar zaio gure gizarteak aurrera egiteko behar beharrezkoa baita. Ikastetxeetan adimenarekin zerikusia daukaten jarduera asko burutzen dira baina sormena alde batera uzteko joera dago. Dena den, marko teorikoan azaltzen den bezala, bi termino hauen artean elkar eragina bermatzen da, hori dela eta bi alderdi hauetan trebatzea garrantzitsua da.

Sormenaren esparrua jorratu duten autore askok (Rodari, 1973; Vigotsky, 1998; Csikszentmihaly, 1998) hau lantzeko jarduera asko eskaini dituzte baina hauetako gehienak

banaka burutzeko prestatuak izan dira. Gainera, ikastetxeetan ikasleei beraien alderdi soziala lantzerantz bideratzen ez bada segurtasun emozionalean, partaidetzan, motibazioan, nortasunean eta lidergo trebetasunetan garatzea eragotzi dezake.

Honez gain, jarduera sozial urria izateak nahaste emozionalak azaltzea ekartzen du, horien artean lotsa edota pertsonalitate pasibo agresiboa daude (Zarbatany, Hartmann eta Ranking, 1990). Ildo honi jarraituz, Casasek (2003) dio ansietatearekin, haserretuta edota deprimituta dauden ikasleak ikasteko arazoak dituztela, egoera emozional honetan murgiltzean informazioa modu eraginkorrean barneratzeko zailtasun asko ezartzen baititu. Aurretik ikasleekin trebetasun sozialak lantzen badira ezagutzen asimilazio handiagoa bermatuko da (López, 2008).

Ikasgelen barruan irakasleek egiaztatu dute ikasle bakoitzak erritmo, behar eta berezitasun ezberdinak dauzkala eta irakasleak alderdi horiek guztiak kontuan hartu behar ditu bere saioak prestatu eta aurrera eramateko. Bestalde, proiektu didaktiko honetan ikasleek taldean lan egin dute eta batak bestearekin argudiatzera, besteen iritziak entzuterantz, adostasun ezberdinetara iristerantz eta taldean modu kohesionatuan lan egitera bideratuak izan dira.

Aipatu diren bi aspektu hauei erreparatuta lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin sormena eta talde lanean aritzen ikasteko proiektu didaktiko bat prestatu da non ikasleak dinamika sortzaileak burutzeko elkarrekin lan egin beharra zeukaten. Ikasleei joko bat erabiliz ausaz abiapuntu ezberdinak tokatu zitzaizkien eta hauek abiapuntuak kontuan hartuta nahi zuten erara istorio bat sortzeko egin beharra izan zuten. Lehenengo istorioa banaka idatzi zuten eta ondoren beste dinamika batekin istorioa taldeka sortzeko bideratua izan zen, horrela ikasleek taldeka eta banaka lan egiterakoan, sormenari dagokionez, dinamikek dauzkaten eraginkortasunari erreparatzeko eta metodologiak alderatu ahal izateko.

3.- HELBURUAK

3.1.- OROKORRA

- Esku hartze pedagogikorako proposamen bat diseinatzea taldeka istorioak sortzeko estrategia erabileraren bidez bideratuta, lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleen sorkuntza prozesuak indartzea ahalbidetzen dituena.

3.2.- ESPEZIFIKOAK

- 1.- Proposamen pedagogikoa balioestea eta honek Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleen sormenaren indarra baloratzea.
- 2.- Lehen Hezkuntzako seigarren mailako haurrengan sormen trebetasunak indartzera bideratutako talde lanean istorioak sortzeko estrategia erabilera erakustea.
- 3.- Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek literaturarekiko daukaten interes eta erabilera zehaztea eta deskribatzea proba diagnostiko bat erabiliz.

3.3.- HIPOTESIAK

Gradu amaierako lan honetan planteatutako sekuentzia didaktikoa aurrera eraman aurretik burura etorritako hipotesiak plazaratuko dira. Jarraian agertzen den hipotesi bakoitzak helburu espezifikoa batekin lotura zuzena dauka.

- Proposamen didaktikoak ikasleen sormena indartzeko daukan baliagarritasuna antzemango da. (1. helburu espezifikoarekin lotuta dago).
- Diseinatutako estrategiekin ikasleek istorioak sortzerako prozesuan talde lanaren garapena bermatuko da. (2. helburu espezifikoarekin lotuta dago).
- Proba diagnostikoaren bidez Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek literaturarekiko daukaten interesa eta erabilera zehaztu eta deskribatzea lortuko da. (3. helburu espezifikoarekin lotuta dago).

4.- MARKO TEORIKOA

Atal honen hasieran sormenaren kontzeptualizazioa eta honen ezaugarri nagusien inguruan hitz egingo da. Ildo honi jarraituz, sormena eta adimenaren artean dagoen aldeari buruz informazioa plazaratuko da. Behin sormenaren terminoa argitu ondoren sormenak Lehen Hezkuntzako etapan duen garrantziari erreparatuko zaio. Ostean, azkeneko urteetan hainbat autoreek (Rodari, 1973; OULIPO, 1960; Grafein, 1970) Lehen Hezkuntzan sormena jorratzeko sortutako jarduera eta baliabideen berri emango da. Gradu amaierako lan honetan autore ezberdinak aintzat hartuta proiektu didaktiko sortzaile bat plazaratu da. Aipatu berri den proiektu honetan talde lanak garrantzi handia dauka, hori dela eta, lanaren alderdi honen azkeneko atalean talde lanaren onuren inguruan hitz egingo da.

4.1.- SORMENAREN KONTZEPTUALIZAZIOA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Planteatu den proiektu didaktiko honetan talde txikietan istorioak idatziz sormena landu daitekeen egiaztatu nahi izan da eta helburu horretara iristeko lehenengo eginbeharra sormena zer den argitzea da. Atal honetan sormena zer den eta zein ezaugarri nagusi dituen zehaztuko dira.

Gaur egun arlo zientifikotik begiratuta ez dago sormenari buruzko definizio zehatzik (Rodrigo Martín, 2012). Sormenaren definizioa dela eta, Villamizar Acevedok (2012) *Revista iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en educación* autore ezberdinen hainbat definizioren berri ematen ditu. Horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Pertsonak daukaten gaitasuna produktuak, konposizioak eta era guztietako ideiak produzitzeko, sorkuntza hauek berriak eta ezezagunak direlarik (Drevdahl, 1956).
- Prozesu sortzailea elementu asoziatiboak konbinazio berrietan eratzean datza beti ere hauek baldintza batzuk betetzen badituzte edota baliagarriak badira. Konbinatzeko elementuak beraien artean zenbat eta urrunago egon prozesua edota erantzuna orduan eta sortzaileagoa izango da (Mednick, 1958).

- Gizabanako sortzaileen ezaugarri diren trebetasunak; jariakortasuna, malgutasuna, originaltasuna eta pentsamendu dibergentea bezalakoak (Guilford, 1968).
- Informazioa modu ez konbentzional batean antolatzeko gaitasuna da, jada ezarrirakoetatik urrun dauden egoera eta arazoei erantzuna emateko prozedura ezberdinen erabilera eskatzen duena (De Bono, 1986).

Sormena zer den zehaztean definizio ezberdinetan hitz berak errepikatu egiten dira. Monrealek (2000) adierazten du termino hau azaltzeko orduan gehien erabilitako hitza “bikaintasuna” dela baina beste hitz erabilien artean “originaltasuna”, “produktibitatea” eta “aurkikuntza” ere aurkitzen dira. Corbalán, Martínez eta Donolok (2003) azaltzen dute sormena terminoa lehenago aipatutako hitzetatik bereizi behar dela hauek beraien definizio propioa baitute eta sormenaren definizio orokor eta zehatz bat lortzeko pazientzia eduki behar delakoan daude.

Nahiz eta definizio orokorrik ez egon, aurretik plazaratuak izan diren definizio guztiek antzekotasuna izan dute. Ildo honi jarraituz, Cereghino Cabrerak (2016) eman du aditzera gizabanako guztietan aurkitzen dela esperimintatzeko, aztertzeko, erlazionatzeko eta azken batean sortzeko bultzada bat, hau da, sormena. Honen inguruan Csikszentmihalyk (1998) dio gizaki guztiek sortzeko potentzial bat daukatela eta honen garapenerako ingurumen familiar eta testuinguruaren estimulazioa funtsezkoa dela. Pertsona guztiek bere barruan sormenaren konfigurazio ezberdina daukate eta hauek forma eta maila desberdinetan adierazten dira. Egile berak aipatzen du termino hau deskribatzerakoan sormena zer den galdetu beharrean sormena non aurkitzen den galdetu beharra dagoela.

Mel Rhodes (1961, 216 orr.) aurreko paragrafoko bi egileek esaten dutenarekin bat dator eta gehitzen du sormenak 4 dimentsio dauzkala. Paulo Benettik (urtea zehaztu gabe), Rhodesen hitzak honela laburbiltzen ditu: “En un artículo que se convirtió en clásico de la literatura técnica sobre creatividad, definió que ésta tiene 4 dimensiones: PERSONA / AMBIENTE / PROCESO/ PRODUCTO. Seguiremos estas dimensiones por considerar que ésta es la mejor manera de aprender como usar la creatividad en nuestro día a día en las organizaciones.” Era

berean, Monrealek (2000, 46 orr.) esaten du sormena bai pertsoneri (sortzaile eta sormenez beterikoa), bai produktuei (ideiak edo lanak) edota baita prozesu sortzaileei (sorkuntzan zentratzen den hezkuntza, sormena kontuan hartzen duen familia) atxikitzen zaiela.

Mel Rhodesek (1961) aipatu zituen lau elementu horietatik bik sormenerako paper aktibo bat daukate hauek aldagai independenteak baitira: pertsona eta testuingurua. Bi hauek sormenari beraien ezaugarri, baldintza eta berezitasun propioak ezartzen dizkiete (Rodrigo Martín, 2012). Beste aldetik, prozesua eta produktua aipatu berritako bi elementuen aktibitate edo esku - hartzearen menpeko aldagaiak dira (Monreal, 2000). Pertsonak eta testuinguruak prozesu sortzailean eragin zuzena daukate hau bermatzea ekartzen dute eta. Era berean, prozesu sortzaile horretatik abiatuta asmatzen dira produktuak, hori dela eta, azkeneko bi aldagai hauek pertsona eta testuinguruaren menpe daude.

Lau dimentsioei dagokionez, Mel Rhodesek (1961, 216 orr.) pertsona honela definitzen du: “Por persona se entiende aquí la personalidad, intelecto, temperamento, actitudes, concepto de sí mismo, sistema de valores, mecanismos de defensa y comportamiento. Para desarrollar su creatividad la persona necesita ejercitar bastante las características de un pensador creativo.”

Pertsonaren dimentsioarekin jarraituz, Trigo eta de la Piñerak (2000, orr. 65-66) pertsonen kategorietara bideratutako sormenaren lau arlo kontuan hartu behar direla diote: jenio sortzailea, sormenerako baldintza bikainak dituen; pertsona sortzailea, baliozko lanetan bere sormena adierazten duen pertsona; sormenez beteriko pertsona, gauza berri edo ezberdinak egiteko gai den pertsona, eta pertsona sasi-sortzailea zeinek sormena ustelkeria edo hondamendia sortzeko erabiltzen duen.

Honen harira, Pardo Reyesek (2016) dio gizakia sortzeko gai den izaki biziduna dela eta horregatik gizakia sortzailea dela, hau da, gauza berriak asmatzeko gai da eta horrek bere bizitzako esparru ezberdinak aldatzeko balio dio. Izan ere, historian zehar gizakiek beraien beharrak asebetetzeko hainbat ondare material eta ez material asmatu dituzte.

Horri gehitu behar zaio Sternberg eta Lubart adituek (1977) diotena zeren pertsona askok uste baitute sormena bakarrik aukeratuta izan diren gizaki gutxi batzuk erabiltzeko gai direla, horien artean Einstein, Picasso edota Mozart nabarmenduz. Sormenaren esparruaren barruan bakarrik arlo artistikoan lan egiten duten pertsonak sartzeko joera dago, bai musikariak, margolariak edota eskultoreak. Baina talde edo kategoria honetan ez dira mekanikoak, kirurgialariak, zientzialari edo teoriarariak sartzen zeintzuk isilpean sormenez beteriko lan aipagarriak aurrera eramaten dituzten (Sternberg eta Lubartek, 1977).

Esan bezala, beste elementu indenpendetea testuingurua da (dimentsioetako bat). Rhodesek (1961) adierazi zuen sormena bermatzeko testuinguruaren presioa eta eragina funtsezkoa dela. Sormena garatzeko hau testuinguru sozial jakin batean egon behar da non kulturak eragiten duen eta sare-sozial zabal baten menpe dagoen. Horrela, gizabanakoaren funtzio sozialak eta hau ematen den leku eta egoerek, testuinguruak alegia, sortze prozesuaren une eta produktu asko zehazten dituzte.

Csikszentmihalyren ustez (1998) produktu bat (kontzeptu bat, lan bat edo akzio bat) sortzailea dela kontsideratzeko ez da nahikoa aktibitate mental baten ondorioa dela esatearekin baizik eta ebaluazio sozial batetik pasa beharra dauka onartua izateko eta gure gizartean eragina izateko, hau da, testuinguruaren beharra dauka. Hori dela eta, Csikszentmihalyk (1998) esaten du sormena fenomeno soziokultural bat dela testuinguru historikoetara lotuta dagoena eta ez bakarrik proposamen indibidualetara. Gainera esparru, arlo eta pertsonen egoera ezberdinak aintzat hartu behar dira.

Historian zehar asmatutako ondare material eta ez materialak sortzeko (produktua, hau ere dimentsio bat izanik) gizabanako hauek pentsamendu sortzailea (dimentsioa) behar dute. Pentsamendu sortzaileak elementu kognitiboen bidez arazoei aurre egiteko gaitasunaz hornitzen ditu pertsonak, horregatik sormena esparru kognitiboarekin lotuta dagoela antzematen da (Pardo Reyes, 2016). Azkeneko hau Rhodesek (1961) esandako prozesu sortzailea izeneko elementuarekin ezagutzen da eta. Erreminta baliotsua eta ezinbesteko izan daiteke hezkuntzaren berrikuntza bermatzeko eta etorkizuna aldatzeko (Chacón Araya, 2005).

Pardo Reyesek (2016) prozesu sortzailea arazo bat irudikatzen hasten dela dio, hots, errealitatean ezegonkortasun edo gabezia bat agertzen da eta errealitatearen zati zehatz batek nobedade bat beharra dauka egoerari aurre egiteko. Egile berak gaineratzen du honen bidez aniztasuna bermatzen dela eta ikuspuntu ezberdinak baloratu eta kontuan hartzen direla. Behin arazoa ezagututa, hurrengo urratsa modu sortzaile batean soluzio bat ematea da eta horretarako gizabanakoek arlo kognitiboa erabiltzen dute. “Arazoari soluzioa ematen dion pertsonak modu progresibo batean arazo horri erantzunik ematen ez jakiteaz arazoa deuseztatzerara pasatzen da”. (De la Torre eta Violant, 2006, 28 orr.).

Hori guztia esanda, sormenez beteriko bizitza bat bermatzeko jakin-mina eta interesak pertsonengan indar handia izan behar du, gauzei arreta berezia eskainiz. Pertsona batzuen sormena oraindik ere 90 urterekin ematen da gizabanako hauek egoera eta gauza ezeguzagun zein arraroak asmatzen eta hauek ulertzen gozatzen jarraitzen dutelako (Csikszentmihaly, 2006).

Alderdi kognitiboarekin jarraituz, Vigotskyk (1981) ere sormenari buruz ondorio batzuk atera zituen. Berarentzat sormena jarduera mentalen ondorioa da. Burmuina ez da organo bat zeinen funtzio bakarra gure aurreko bizipenak gorde eta erreproduzitzea den baizik eta, aitzineko esperientzia horietako elementu ezberdinak lotuta eta eraldatuta, ideia eta jokaera berriak sortzeko gai den berebiziko atala. Bere planteamenduan bi aktibitate mental bereizten dira: bat, esperientzien erreproduzioaren bitartez ematen da; bestea, aldiz, esperientzia ezberdinak lotuta antzematen da jarduera edo forma berrietan. Azken honi erreparatuta ikusten da haurretan adin txikietatik sortze prozesua ematen dela.

Vigotskyk (1990) esaten du irudimenezko jarduera hauek ume txikien jokoetan ikusten direla, adibidez erratz bat hanka artean jarri eta zaldi bat dela imajinatzean edota bizikleta espazio ontzi bat dela irudikatzen dutenean. Egoera honetan imitatzeak paper garrantzitsu bat jokatzen du, hots, umeek aurreko esperientzietan entzun eta ikusitako imitatu egiten dute baina esperientzia hori joko moduan adierazterakoan ez da errealitatearen berdina izaten. Haurren jokoak ez dira bizitzako esperientzien oroimen soilak baizik eta bizipen horiek eraldatu, beraien artean lotu eta antolatu egiten ditu bere errealitate propio sortzeko non bere interesak eta eskaerak ihardesten dituen.

Beraz, jarduera sortzailearen oinarriak sendotzeko haurrak bizipen eta esperientzia esanguratsu berriak izatea bermatu behar da, haurrak zenbat eta gehiago entzun, ikusi eta bizitzen badu orduan eta errealitatea ezagutu, barneratu eta esperientzietan oinarritutako elementu gehiago ezagutuko ditu sormena garrantzitsuagoa eta produktiboagoa izanik (Bamberger, 1982; Lehman, 1953; Simonton, 1988, 2000).

4.2.- SORMENA ETA ADIMENAREN ARTEKO LOTURA

Aurreko atalaren azkeneko paragrafoetan alderdi kognitiboaren inguruan hitz egin da. Oraingoan alderdi kognitiboa eta adimenaren artean dagoen erlazioari buruz xehetasunak emango dira, bi termino hauek zerikusi handia baitute.

Ferrando eta kolaboratzaileek (2005) *Sormena eta adimena* izeneko ikerketan bi hitz hauen arteko erlazioaren inguruan hitz egin zuten eta horretarako egile ezberdinen bost hipotesi aztertu zituzten, jarraian azalduko direnak.

Lehenengoan, Guilfordek ez zioen sormena adimenarekin alderatuz desberdina zela, baizik eta bigarrenak lehenengoa barne hartzen zuelakoan zegoen, hau da, pentsamendu dibergentea adimenaren zati bereizgarritzat hartu zuen.

Bigarren hipotesian, Wallach eta Koganek (1965) planteatutakoan, ikerketen bidez egiaztatu nahi izan zuten bi termino hauek ezberdinak izan arren, hau da, independenteak izan arren, batak besteari elkar eragiten diola. Hori dela eta, egile hauek esaten zuten sormena izateko adimena beharrezkoa dela. Elkar eragin horri erreparatuta Wallach eta Koganek pertsonak lau talde mota desberdinetan bereizi edota sailkatu zituzten:

- Adimen altua eta sormen altua: beraien buruarekiko kontrol handia bai haurtzaroan eta baita helduaroan.
- Adimen baxua eta sormen altua: beraien buruarekin gatazka pertsonalak eta baita eskolako esparruan. Konfiantza gutxi eta asko dudatzen duten pertsonak.

- Adimen altua eta sormen baxua: Eskolan errendimendu altua eta ez dira atentzioa erakartzen saiatzen.
- Adimen baxua eta sormen baxua: orientazio pertsonalean arazo larriak dituzte.

Hirugarren hipotesi batek dio bi termino hauek guztiz independenteak izan arren ezin dela ukatu bien artean hurbiltasun handia dagoela. Pertsona adimentsu eta gizabanako sortzaile baten jokaerak aztertu ondoren egiaztatu zuten efektu zehatz batzuk sormenari eta beste batzuk adimenari egokitzen zitzaizela. Arazoei aurre egiteko adimena erabiltzea beharrezkoa da eta arazo hauek konplexuak direnean prozesuan zehar jokamolde sortzailea izatea beharrezko dela diote. Beste hitz batzuetan, arazoei irtenbide bat bilatzeko orduan adimena erabiltzeaz gain sormena ere erabiltzen da eta horregatik esaten dute bi terminoen artean gertutasuna dagoela (Ferrando eta kolaboratzaileak, 2005, 4 orr.).

Sternbergekin (1988) defendatzen du “creatividad e inteligencia son expresiones de la capacidad mental, pero cada una tiene una finalidad distinta y exige unos recursos diferentes, lo que significa que ambas atienden a la información, la recuperan y la organizan de manera diferente. Pero ambas contribuyen a dar una respuesta integrada que se adapta a una tarea específica o al ambiente inmediato” (Genovard, Prieto, Bermejo, Ferrándi eta Ferrando eta kolaboratzaileak 2005, 4 orr.).

Azkeneko hipotesia Gardenen (1983) “adimen aniztunak” izenpean ezagututako ikuspuntutik dator. Harvardeko irakasle honek dio sormena eta adimena gauza bera direla eta pertsona sortzaile eta pertsona adimentsuez hitz egiten dugunean definizio bera erabiltzen dela. Gardenek (1983) adimena zortzi mota independenteetan bereizten ditu eta bata besteari elkarreragin eta hobetu dezaketelakoan dago. Zortzi adimen motak honako hauek dira: linguistikoa, logiko-matematikoa, espaziozkoa, musikala, gorputz-kinestesiakoa, pertsonartekoa, intrapertsonala eta naturalista.

Egile ezberdinen hipotesiak aztertuta, ikusi da egile batzuentzat bai sormena eta baita adimena termino independenteak direla eta beste batzuentzat, aldiz, biak modu zuzen batean lotuak daudela. Baina guztiek bi terminoak bata besterekin erlazio eta estutasun handia daukatela adierazi dute, sormenak eta adimenak elkar beharra baitute.

4.3.- SORMENAREN GARRANTZIA LEHEN HEZKUNTZAKO ETAPAN

Aurreko ataletan sormenaren ezaugarriez eta honek adimenarekin daukan erlazioaz hitz egin da. Aurrera eraman den proiektu didaktikoa sormena Lehen Hezkuntzako etapan lantzeko bideratuta egon da, beraz, jarraian datorren atalean sormenak etapa honetan daukan garrantziaren inguruan informazioa eskainiko da.

Lehenik eta behin esan beharra dago lehenengo haurtzaroan sormenarekin sortzen diren erlazioak oso garrantzitsuak direla. Aldi berean, ikastetxean, familian eta komunitatean, oro har, momentu eta estrategia desberdinen bidez sustatzeko modua aztertu behar da (Pardo Reyes, 2016). Pardo Reyesen (2016) iritziz, sormena pertsona bakoitzak berezkoa duen elementu bat da eta hau lantzeko esperimendazioa ezinbestekoa da. Honek haurrak jarduera ezberdinen bitartez sormena lantzeko estimulatzen behar diren hipotesiari indar gehiago ematen dio.

De la Torre eta Violant (2006) Pardo Reyesek (2016) dioenarekin ados daude eta hauek esaten dute sormena balio pertsonal bat dela pertsonak daukaten eraldatzeko indarra estimulatzen eta antzematen baitu; hezitzailea da trebetasun eta hobekuntzarako jarrerak eratzten dituelako (De la Torre eta Violant, 2006, 255 orr.).

Sormena sustatzeari buruz hitz egitean haurtzaroa bizitzako etapa garrantzitsu bat dela argi dago. Gaitasun hau garatzea garrantzi handikoa da, umeentzat sortu eta asmatzea ekintza naturala izateaz gain bere beharretako bat asetzea ekartzen baitu. Bestalde, gizartean hobeto moldatzeko beharrezkoa da (De la Torre eta Violant, 2006, 246 orr.).

Ildo horri jarraituz, Pardo Reyesek (2016) eman du aditzera adin txiki honetatik jada ezagutza ezberdinei hasiera ematen zaiela eta horien artean ekintza natural hori dago. Bizitzako elementu hau haurren izaeran aurkitzen da bai modu biologiko batean baita modu espiritual edo kultural batean, sormena bizitzaren zati bat baita. Pertsona guztiek ezaugarri ezberdinak izanik sormenak ere ezaugarri ezberdinak ditu, horrela pertsona bakoitza bakarra eta errepikaezina dela esaten du. Hortaz, pertsona guztiek sormenarekin daukaten esperientziak ezberdinak dira (Pardo Reyes, 2016).

Aurretik aipatu bezala, haurtzarora sormenaren potentziala esploratzeko aldi kritikoa da, hots, etapa honetan haurrek askatasunez probatzen dituzte beraien trebetasunak eta gaitasun gehiago garatzeko irrikan daude. Oraindik ez daude arazoak ebazteko eskema zehatzetara lotuta eta horrek aukerak ematen dizkie horiek konpontzeko modu desberdinak probatzeko. Haur Hezkuntzako garaia askatasun hori mantentzeko aproposa da, umeek aurkezten zaizkien zailtasunei naturaltasunez aurre egiten baitizkiete (Cereghino Cabrera, 2016). Fenomeno honi Thomas eta David Kelleyk (2013) *konfiantza sortzailea* deitu zioten.

Esperientzia bereizgarri horiek gizabanako bakoitzak bere burua ezagutzeko gaitasuna pixkanaka pixkanaka garatzea bermatzen dute, bakoitzak bere buruaz gain besteen buruak ulertzeak gainerakoen egoera mentalak antzematea ekartzen baitu, gure testuingurua eta gainerako pertsonak gertutik ulertzeko (Villanueva, Clemente, García, 2000). Brunerek (2010) bere adostasuna erakusten du eta gaineratzen du ezagutza prozesu aktibo bat dela zeinean zirrarak zuzenean inplikaturik dauden eta lotura afektiboek garrantzi handia daukaten umeak konfiantzaz esperimendatzeko, bere errealitatea ezagutzeko eta identitatea sortzeko.

Haurtzaroko lehen urteez asko hitz egin da baina esan beharra dago etapa honetatik eskolatzeko urteetara trantsizio bat ematen dela. De la Torrek (200, 255 orr.) aditzera ematen du haurtzaroko lehenengo urteetan joko ludiko eta dinamikoek haurren interes gehienak bereganatzen dituztela eta eskolatzeko garaian, aldiz, norberaren barne ezagutza eta inguru hurbilaren ezagupenak direla nagusitzen direnak. Haur hezkuntzan eta Lehen hezkuntzako lehenengo urteetan ikasleei beraien adina aintzat hartuta espazioaz hornitu behar zaie, hauen bitartez ikasleak norberaren barne ezagutza bermatzeko, beren gorputza ezagutzeko, espazioa ezagutzeko eta ingurunea ezagutzeko baliabideak eskainiz. Irakasleak ikasleei espazioa esperimendatzera bideratzerakoan sormena lantzea bermatu egiten da eta ekintza horrek ikasleek izaera eta ideologia ezberdinak garatzea ekartzen du gizartean bizitzeko konpetentzia eta balioak barneratuz eta errealitatea ulertzeko tresna esanguratsu bat da (Pardo Reyes, 2016).

Baliabide hau eskolara eraman behar delakoan dago Cereghino Cabrera (2016), gainera, aipatzen du herrialde askotan erreforma hezitzaile ezberdinak martxan jartzen ari direla egiturari, funtzionamenduan eta lege araudian hobekuntzak ezartzera bideratuta, horrela

irakasleei ikasleen potentzial fisikoa, intelektuala, morala eta sortzailea garatzeko ardura emanaz. Horren bidez korrante psikopedagogiko berriak eta eskakizun sozialak bermatzeko aukera izango da. Hezitzaileari dagokio hezkuntzarako ingurunea antolatzea eta esperientzia aberasgarriak eskaintzea ikasleei hezkuntza berritzaile eta dibergentea ahalbidetzeko.

Cereghino Cabrerak (2016) horren harira gaineratzen du gaur egun hezkuntzak ikasleei lan autonomo bat lortzeko trebetasun kognitibo altuagoak eta sortu eta eraldatzeko gaitasunak garatzeko orientatzen dituztela, hauen bidez garai honetako aldaketa teknologiko, sozial eta kulturei modu eraginkorrean erantzuten lagunduko dietenak. Menchenen (1998) honen inguruan dio ikasleak gelan aktiboki parte hartzea bilatu behar dela eta hezkuntzako etapa honetako helburuak honako hauek izan behar direla: ekintzekiko askatasuna, entzuten ikastea, parte hartzea, tolerantzia eta autonomia.

Hezkuntza sistemak sormenaren garapenean daukan influentziaren inguruan irakasleek berebiziko eragina daukate. Irakasleek izandako beraien esperientzia pertsonalaren arabera metodologia ezberdinak martxan jartzen dituzte bere irakasle estiloa sortuz (ikasle garaian, irakasle garaian eta herritarra delarik barneratuak). Cereghino Cabrerak (2016) irakasleak bi talde ezberdinetan sailkatzen ditu:

- Ikuspuntu tradizionala: ikuspegi honen ideia nagusia ezagutza estatikoa eta transferigarria da. Irakasleak modu formal batean ikasleei irakatsi nahi diena azaltzen die eta horretarako material tradizionalan oinarritzen da. Ikuspuntu honetan alderdi kognitiboa bakarrik hartzen da kontuan, ikasleak eskolara bakarrik gizaratean egokitze informazioa eskuratzera joaten dira. Era honetan irakaslea da erritmoa markatzen duena eta berak esaten duenari jarraitu eta obeditu egin behar zaio, bestela zigor bat jasotzeko aukerak handiak dira. Irakaskuntza autoritarioa da.
- Ikuspuntu berritzailea: Ikuspuntu honetan ikasleen erritmo eta estilo ezberdinak aintzat hartzen dira ikaskuntza esanguratsu baten bila. Irakasleak bere ikasleen aurrezagutzak identifikatzen ditu bere jarduerak antolatzeko. Jarduera hauek kutsu ludiko bat daukate helburu didaktiko batekin. Halaber, jarduera hauek dinamikoak eta errealitate sozialera hurbilak dira pentsamendu dibergenteak lantzeko helburuarekin.

Irakasleak ikasleek beraien ideiak plazaratzera bideratzen ditu eztabaida ezberdinak aurrera eramanez. Ez da irakaskuntza autoritarioa.

Ikasgela batean sormena kudeatzea ez da lan erraza eta horretarako irakasleak lehenagotik prestaketa bat izatea garrantzi handikoa da; metodologia, material ezberdinak edota umeak izandako bilakaerari erreparatzea. Beste aldetik, helburu batzuk finkatu behar ditu ebaluatzeko instrumentu ezberdinak martxan jarritz (alderdi kuantitatiboan bakarrik zentratu beharrean kalitateari ere erreparatu behar zaio) (Cereghino Cabrera, 2016).

Menchen (1998) aurretik aipatu berri denarekin ados dago baina sormena eraginkorrago sustatu ahal izateko gela guztietako programazioan presente egon beharko liratekeen lau printzipio azaleratzen ditu:

- Esportaneotasuna: ikasleek beraien ideiak, esperientziak eta iritziak askatasunez plazaratzeko aukera izan beharra daukate. Ekintza honek beraien buruarekiko segurtasuna eta konfiantza izatea ekartzen du eta modu horretan komunikazioaren garrantziaz ohartuko dira.
- Elkarrizketa: elkarrizketak besteen interesen berri izatea eta bakoitzarenak helaraztea ekartzen du. Beste ikuspuntuak ezagutzeko baliagarria da.
- Originaltasuna: iniziatiba eta korrante ideologiko berrien bilaketa sustatu behar da, honen helburu nagusia ikaslearen malgutasun mentala garatzea izanik.
- Kritikotasuna: beraien ikaskuntza eraikitzeke gaur egun onartua dagoen guztia zalantzan jartzean datza. Irakasleak aktiboki eta kritikoki pentsatzera bideratzen ditu, eskuratzen duen informazio guztia zalantzan jartzeko eta ikuspuntu kritiko eta konstruktibo batetik aztertzeke.

Autore berak (Menchen, 1998) sormena bultzatzen duten zenbait irakaskuntza estrategia plazaratu zituen. Alde batetik, *estrategia orokorrak* daude, estrategia honen bidez hizkuntzak onartutako konbentzioetatik haratago joan behar dela dio. Tekniken artean, adibidez, umorearen erabilera, analogiak, hitz jokoak eta paradoxak aurkitzen dira. Beste aldetik, *sentsibilizaziorako teknikak* daude. Zer gertatuko den ikusteko zerbait proposatzean datza. Estimulazio honen bidez buruan ideia berriak sartu nahi dira pentsatzeko era berri eta

sortzaileak garatzeko helburuarekin. Teknika hauen artean role playing, brainstorming, collage, besteak beste, daude.

Jarduera ludiko horiek ikasleen motibazioa aktibatzen dute eta efektu hau beharrezkoa da sormena lantzeko. Azaldu berri diren estrategien bidez espontaneotasuna, irudimena eta intuizioa estimulatzeko aukera dago. Gelako testuingurua esanguratsua izatea premiazkoa da eta horretarako materialak askotarikoak eta umeek arazorik gabe hartzeko kokatuta egon behar dira. Ikasleek pentsamendu dibergente bat garatzeko hauen autonomia hobetzen duen irakaskuntza bat bilatu behar da eta gelan giro demokratiko bat sortu behar da haurrak bere iritziak emateko eta besteenak errespetatu ahal izateko (Cereghino Cabrera, 2016). Azkenik, ikasleek lan originalagoak sortzea bilatzeko gelan askatasunez eta malgutasunez beteriko giro bat bermatu behar da (Espriú 2005).

4.4.- AUTORE EZBERDINEN PROPOSAMENAK SORMENA LEHEN HEZKUNTZAN LANTZEKO

Historian zehar hainbat autore sormena lantzearen garrantziaz ohartu dira eta hori lantzeko metodologia ezberdinak planteatu dituzte. Jarraian aipatuko diren hiru autore edo taldeek azkeneko urteetan ikastetxeetan sormena lantzeko baliabide ugari sortu dituzte eta atal honetan jarduera horien berri emango da.

Lehenik, Rodari aurkitzen da. Gianni Rodari (1920-1980) italiar kazetari eta idazle komunistaren obren helburu nagusia irudimenaren indarra berreskuratzea eta ariketa ezberdinen bidez hauek umeen hezkuntzan aplikatzea izan zen (López Gaseni, 2009). Rodarik 1973. urtean “Gramática de la fantasía” liburua argitaratu zuen, obra honetan ikasleekin sormena erabiliz idazkera lantzeko hainbat teknika argitaratu zituen (hitz uhinak, hitz berriak asmatzen, ipuinak nahasten, besteak beste). Teknika hauen bidez haurtzarotik sormena eta irudimena sustatu nahi izan da eta egilearen helburu nagusia neska-mutilek istorioak eta fantasiako kontaerak idatziz ikasleak ekintza sortzailean trebatzea izan da. Obran aipatzen du irakaslearen eginbeharra ikasleak animatu eta hauei sormena garatzera bideratzea dela.

Rodari ez da sormenaren inguruan lanketak egin dituen bakarra. OULIPO (Literatura Potentzialeko Lantegia) taldea 1960 urtean Frantzian sortu zen eta irudimena lantzeko ekarpen ugari egin zituen (López Gaseni, 2009). Oulipo ez da mugimendu literario bat ez da eskola teoriko bat, baizik eta literatura esperimentalaren ardatz nagusia izanik ikerketak egiten dituen talde bat da. Georges (1992) dioenez hauen helburua “es proporcionar formas literarias susceptibles de promover creaciones novedosas” da. Ouliporen proposamenak literatura potentzialaren izenpean ezagutzen dira, “llamamos literatura potencial a la búsqueda de formas, de estructuras, de estructuras nueva que además puedan ser utilizadas por los escritores de la forma que les plazca (Queneau, 1961).” Teknika ezagunenak literatura lipogramatikoa, S + 7 eta literatura definitzailea dira.

Hirugarrenik, Grafein taldea dago. Grafein 70. hamarkadan Argentinan, letra eta filosofiako ikasleek idazketaren inguruan hausnartu eta hitz egiteko sortu zuten talde bat izan zen. Bertako zeregina hau da: botatako kontsigna batekin testu bat idatzi behar zen denbora jakin batean (López Gaseni, 2009). Maite Alvarado eta Gloria Pampillok (1984) Grafeinen helburuak “promover la lectura y la escritura a partir de consignas, la reflexión sobre los textos y la búsqueda de discusiones acerca de problemas teóricos. No se incluyen listas de temas a desarrollar en un programa ni mecanismos para evaluar” direla plazaratu zuten. 1981. urtean Mario Tobelem idazleak *Grafein: teoría y práctica de un taller de escritura* izeneko liburua argitaratu zuen eta bertan idazleen metodo, ikastaroak eta oinarri teorikoak argitaratu zituen (Bas, 2015).

Talde eta pertsona hauek gaur egungo ikastetxeetan sormena lantzeko metodologietan eragin handia izan dute. Zehaztutako autore eta taldeek literatura lantzeko planteatutako metodologiek funtzio didaktikoa eta dibertsioa bateratzea lortu dute, pedagogia kontserbatzailetik literatura eta sormena jokoaren bidez jorratzera pasatuz.

4.5- TALDE LANAREN GARRANTZIA

Azkeneko urteetan sormena landu eta sustatzeko hainbat autoreek planteatu dituzten jarduerak ezberdinei buruz hitz egin da eta aipatutako ariketak banaka jorratzeko diseinatuak izan ziren. Gradu amaierako lan honetan aurrera eramane den sekuentzia didaktikoan indibidualtasuna

albo batera utzi da talde lanari ekiteko. Proiektu didaktiko honen helburuak betetzeko ikasleak talde txikitan batu dira, hau da, ikaskuntza kooperatiboaren bidez lan egin dute. Baina zer da ikasketa kooperatibo hori? Ikaskuntza kooperatiboa talde txikiak eratzean datza ikasleak batera lan egiteko eta beren ikaskuntzan eta besteenean ahalik eta etekin gehien ateratzeko (Johnson, Johnson eta Holubec, 1993).

Lehenik eta behin, argi utzi nahi da talde heterogeneoetan elkarrekin lan egiten jakitea, lankidetzan aritzeko eta taldean lan egiteko gaitasunak barne, ikerketa ezberdinek ezinbestekotzat adierazten duten gaitasun bat dela gaur egungo eta etorkizuneko gizartean bizi ahal izateko (DeSeCo, 2002; Delors, 1996). Ildo honi jarraituz, ikasketa kooperatiboak prozesu honetan laguntzen du eta Gavilánek (1997) dio bere onura nagusien artea honako hauek aurkitzen direla:

- Ikasgelan ikerketa ingurugiro bat eratzea errazten du non ikasle bakoitzak bere ikuspuntua eta ideak partekatzeko aukerak luzaratzen dituen.
- Lan autonomia sustatzen du.
- Motibazioa areagotzen du informazioa partekatu eta ikuspuntuak alderatzen diren bitartean, horrela taldean lan egiten ikastera bideratuz.
- Ikasleei zereginak ebaztera eta beraien ikaskuntza propioan sakontzera bideratzen ditu (Serrano, 1996; Slavin, 1983).

Onurekin jarraituz, Johnson eta Johnsonek (1987) aurrera eramane zuten ikasketa meta-analisiarekin metodologia honek motibazioan, errendimendu akademikoan, ikaskuntzarekiko jarrera baikorragoa izaten edota autoestimuan efektu onuragarriak dauzkala argitaratu zuten (Cano, 2011). Honekin batera Tlusty, McIntyre eta Eiermanek (1993) esaten dute ikasleek besteekin lan egiterakoan asebetetze maila handiago sentitzen dutela, horrela ulermenean, ezagutzen atxikimenduan eta alderdi sozioemozionalean lagunduz (Jones eta Jones, 2008).

Hori dela eta, ikaskuntza kooperatiboa ez da erreminta metodologiko huts bat bakarrik, baizik eta ikasleek gaitasunak garatzeko behar beharrezko baliabide bat alderdi sozial zein

kognitiborako, edozein ikasgeletan aurkeztutako beharren aniztasuna barne hartzeko aukera ematen baitu eta (Serrano, 1996; Úriz, 1999).

Metodologia honek dibertsitatea aintzat hartzeaz gain berarengandik etekin didaktikoa lortzen du (Durán eta Vidal, 2004). Duela hamarkada gutxi batzuetatik hona programa kooperatiboak inklusibitatea bermatzeko baliabide gisa erabiltzen ari dira (Putnam, 1998). Hezkuntza inklusiboa ikasle guztien beharrei erantzun eta asebetetzea bilatzen duen prozesua bezala definitu da, ikaskuntza, kultura eta komunitateetan parte hartze handiagoa lortuz. Aldi berean bazterkeria hezkuntzaren esparruan eta kanpoan murriztea du helburu (Booth, 1996).

Alderdi sozialean gehiago sakonduz, “el entramado cooperativo hace que los alumnos y las alumnas se sientan mejor, más relajados frente a la materia y con más confianza en sí mismos. Mejoran las relaciones del grupo y, como consecuencia de ello, en clase encuentran personas en quien confiar a nivel personal y académico, disminuyendo el absentismo y aumentando el compromiso personal por aprender” (Gavilán, P. 1997, 2 orr.).

Ez da ahaztu behar metodologia horrek eskoletan esparru akademikoan ere eragin zuzena daukala. Johnson eta Johnsonek 1924 eta 1981.urteen artean honako ondorio hauetara iritsi ziren (Gavilán. 1997, 2 orr.):

- Alderdi, adin eta maila hezitzaileetan ikaskuntza indibidualean baino errendimendu handiagoa erakusten du.
- Beste ikaskuntza motetan baino arrazoinamendu maila handiagoa, ideia gehiago pentsaraztera, pentsamendu kritikora eta sormenena erabiltzera bideratzen du.
- Epe luzera begira efektu baliagarriagoak eragiten ditu eginbeharrak errutinatik ateratzen direnean eta eginbeharra arazoak ebaztea denean.

Hortaz, metodologia honekin ikasleak gainerako kideen berezitasunak aintzat hartuta eta errespetatuz lan egitera bideratu nahi izan da, taldekatzerakoan komunitate txiki bat sortuz eta ekintza burutzeko elkarrekin lan egitera gidatuz.

5.- ESKU HARTZEA

5.1- SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Atal honetan prestatutako unitate didaktikoaren barruan saio bakoitzean jorratu eta aurrera eramandako jarduera bakoitza zehaztuko da.

Sekuentzia didaktikoa 3 saioz osatuta zegoen eta Berako Ricardo Baroja eskolako seigarren maila osatzen duten 15 ikasleekin burutu zen. Ikasle guztiak euskaldunak dira eta ez dute arazorik euskara hizkuntza ulertu eta mintzatzeko. Honez gain, ikaskideen artean giro oparoa eta alaia bermatzen da, batak besteari lagunduz eta ez da inongo diskriminaziorik egon. Tutoreak zein ikasleek ez zuten proiektuan parte hartzeko inongo trabarik jarri eta momentu oro oso lagunkoi azaldu ziren. Proiektua diseinatzeko orduan Nafarroako curriculumak lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleei begira ezarritako gaitasunak, helburuak eta edukiak errespetatu dira (ikusi 1. eranskina).

Argitu nahi da ikerketa hau burutzen ari zen denbora tartean covid-19 birusak ingurune hurbilean indar handia hartu zuela eta horrek aurrera eraman den sekuentzia didaktikoa behin baino gehiagotan eraldatzea ekarri zuen eta azkenean jarduera asko fitxa modura moldatuak izan ziren. Egoera honen aurrean ikastetxeko tutore eta ikastalde bakoitzak astelehenero goizeko 9.30 - 10.30 artean asteko plangintza azaltzeko bideo deia bat aurrera eramaten zuten. Seigarren mailako irakaslearekin hitzartu ondoren ni ere ordu horretan *meet* erabilia deira konektatu nintzen eta tartetxo batez lehenengo saioko dinamikak azaldu nituen bai eginbeharrekoa argitzeko eta baita ikasleen zalantzei erantzuteko. Saiok eta fitxan ikasleak ohituta zeuden googleko *classroom* izeneko plataforman eskuragarri zeuden “hizkuntza” ikasgaiko karpetaen barruan. Hau tutorearekin antolatua izan zen plataforma hau erabiltzen baitzuten klaseak onlinez bideratzeko.

Lehenengo saioko fitxako lehendabiziko ariketa galdetegi txiki bat izan zen non ikasleek literaturarekiko zeuzkaten ohiturak eta gustuak ezagutzeko helburua zeukana. Hasiera batean lehenengo saioko jarduera hori gela barruan modu dinamikoago batean burutzeko diseinatuta egon zen galderak arbela digitalean plazaratuz eta horrez baliatuta talde handian eztabaidatzeko Azkenean, bai irakasle eta ikasleen artean planteatutako 3 galderei

kritikotasunez biltzar txiki batean erantzun eta eztabaidatu beharrean ikasleek galderei beraien etxeetan modu idatzian erantzun zituzten (ikusi 2. eranskinoko 2.1.1 *lehenengo saioko fitxa* puntua).

Lehenengo saioko eginbeharraren barruan galdetegiaz gain bigarren jarduera bat zegoen eta dinamika honetan ikasleak modu indibidualean istorio bat sortzera bideratuak izan ziren. Jardueran ikasleek *scratch* izeneko programa elektronikoz baliatuta aldeztatik sortutako 8 aldeko dado bat erabiliz ausaz lau jaurtiketa eginez jaurtiketa bezain beste zenbaki atera zituzten eta hauek lau taula ezberdinetan (zenbaki bakoitza taula batean) ezarri behar izan zituzten, esan beharra dago, taula bakoitzean dadoan bezain beste aukera zeudela. Lehenengo taulan ikasleei istorioa kokatzeko denbora egokitu zitzairen; bigarrena lekuari zegokion eta bertan munduko hiri baten izena tokatu zitzairen; hirugarrenean, istorioko pertsonaia nagusia ezartzen zen eta laugarren taulan egoera bat mahaigaineratu zitzairen. Abiapuntu horiek kontuan hartuta beraien istorio pertsonal eta propioak sortu zituzten (lehenengo saioko fitxa bere osotasunean ikusteko ikusi 2. eranskinoko 2.1.1 puntua *lehenengo saioko fitxa*).

Bigarren saioari dagokionez, oraingo honetan istorioak bakarka sortu beharrean ikasleak istorioak talde txiki heterogeneoetan sortzea jorratu zen. Aurreko kasuan bezala bigarren saio honen eginbeharrekoa bideo deiaren bidez argitu zen ikasleekin zuzeneko kontaktua izanik. Bigarren saio honek jarduera bakarra zeukan eta eginbeharra talde txiki heterogeneoetan ausaz tokatutako istorio baten hasierari bukaera bat ezartzean zetzan. Jarduera honekin ikasleak istorioak taldeka idazteko gai direla eta estrategia hori baliagarria dela egiaztatu nahi izan zen. Dinamikarako ikasleak urte betetzearen egunaren arabera hirunaka batu ziren eta taldekide bakoitzak rol zehatz bat hartu zuen: arduraduna, idazlea eta irakurlea.

Taldeko arduradunei bigarren saioko fitxan ZENBAKIAK estekan sartu eta ausazko zenbakien joko elektronikoen bidez ausaz zenbaki bat ateratzea eskatu zitzairen. Behin programaren aurrean zeudela bandera BERDEAN klik egin eta aplikazioa martxan jartzeko “ESPAZIO” izeneko teklatua sakatu behar izan zuten. Ekintza honen bidez 1etik 5era bitarteko zenbaki bat atera zitzairen.

Saio honetako fitxan zenbatutako 5 istorioen hasiera agertzen zen eta ikasleak taldeka bakarrik joko elektronikoan atera zitzaien zenbakia zeukan pasarteari gorputza eta bukaera eman behar izan zioten, talde bakoitzak bost aukeretatik bakarra osatuz. Talde bakoitzak zenbaki bat zeukala guztien artean onlinez konektatu beharrean taldeka konektatu ziren istorioa burutzeko. Istorioa idaztea idazlearen eginbeharra izan zen (ikusi 2. eranskinoko 2.1.2 *bigarren saioko fitxa* puntua).

Hirugarren eta azken saioari dagokionez, egun horretarako prestatuta zegoen jardueren azalpenekin hasi aurretik, aurreko saioan eraturako talde bakoitzeko irakurleek *meet* plataforma erabiliz tokatu zitzaien zenbakia eta abiapuntua kontutan hartuta idatzi zuten istorioa irakurri zuten. Behin irakurketarekin bukatu ondoren ikasleei hirugarren saioaren fitxaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien. Fitxa 3 galderez osaturako galdetegi bat zen eta bertan ikasleei literaturak gure gizartean daukan garrantziari buruz, istorioak sortzeko bi jardueren inguruan (bakarka eta taldeka sortu beharrekoak) eta sortu zituzten pertsonaiez galdetuak izan ziren (ikusi 2. eranskinoko 2.1.3 *hirugarren saioaren fitxa* puntua). Azkeneko saio honen fitxa betetzearekin batera ikasleei unitate didaktiko honetan burututakoaren inguruan balorazio fitxa bat betetzea eskatu zitzaien (ikusi 5. eranskinoko 5.1.1 *balorazioaren fitxa* atala). Fitxa honek ikasleen eskutik hauen iritziz proiektuaren puntu indartsuak eta ahulak zein ziren aipatzea eta hauek biltzea eta honekin batera gehien eta gutxien gustatu zitzaiena zer zen jakitea bilatu zen.

Aurreko saioetan bezala, *meet*en bidez jarduerak azaldu ziren eta ondoren ikasleek bai galdetegiak zeukan fitxa eta baita balorazioa ere bakoitzak bere etxean modu indibidualean bete zituen.

5.2- METODOLOGIA

Nafarroako Foru Komunitatearen Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duenaren arabera metodologia honela deskribatzen du: *metodologia didaktikoa, irakaslanaren deskribapena zein irakaslanaren antolaketa barne hartzen dituen*. *Ikasleek ikasi eta ebaluagarriak izan behar dute eta errendimendua edo erdietsitako lorpena mailakatzeko aukera eman behar dute.*

Aurrera eraman den metodologia hautatzeko ikasleen interesak, erritmoak, aurre ideiak, motibazioak eta hauen beharra kontuan hartu dira, hauek izan baitira abiapuntuak. Ikaslea ikaste prozesuan protagonista izatea bilatu da. Erabili ziren estilo metodologiko ezberdinak honako hauek izan dira:

- Zereginetan oinarritutako estiloa: ikasleei zeregin bat ematen hasten da baina irakasleak ez die nola egin esaten baizik eta irakaslearen lana prozesuan hauek gidatzea da, hauei erabakiak hartzerantz bideratuz.

- Talde lana: Ikasleek dinamikak aurrera eramateko taldeetan elkarrekin kohesionatuz lana egin beharko dute.

- Aginte zuzena: Irakasleak aurrera eraman beharreko jarduerak azaldu eta zenbait arau ezartzen ditu.

- Balorazioa: Metodo honen bidez ikasleak bere burua, bere indarguneak, ahuleziak, besteak ezagutu eta errespetatzea bermatzen da.

- Scratch: Proba diagnostikoko lehenengo jarduera burutzeko scratch izeneko programarekin sortu nuen dadoaz baliatu gara. IKT-ak lantzeko ariketa txiki baten bidez.

5.3- EBALUAZIOA

“60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatearen Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena” kontuan hartuta, *ikasleek eskubidea dute ebaluzio objektibo bat izateko eta beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objetibotasunez baloratuak eta aitortuak izan daitezzen*. Curriculum berean ezartzen da ikasleen ikaskuntza prozesuen ebaluazioa etengabea eta orokorra izango dela eta ikasleen aurrerapena hartuko duela kontuan, bai arlo bakoitzean bai arlo guztiak batera hartuta. Ebaluazioa, alde batetik, prozesuala izango da saio guztietan zehar ikasleak izaten ari den eboluzio hezitzaileari erreparatu egingo zaiolako; beste aldetik, saio guztietan zehar behatutakorako azken ebaluazio bat egongo da non lehenagotik erreparatutako guztia barne hartuko duena.

Ebaluazioa irakasleak egin du, hori dela eta, heteroebaluazio bat bermatu egiten da. Ebaluazio irizpide eta ebaluatu beharreko ikaskuntzarako estandarretarako “*Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena*” errespetatu egin da gaitasun ezberdinen eta helburuen lorpenak zehazteko. Erabili diren tresnak honako hauek dira (ikusi 6. eranskina):

- Balorazioa: Fitxa hau ikasle bakoitzak berea bete du eta bertan besteak beste saioan zehar aurkitutako ahulezia, puntu indarrak, asebetetze maila eta hobekuntzarako proposamenak plazaratu ditu. Honez gain, irakasleak ikasleak saioan nola sentitu diren jakiteko balio izan du. (ikusi 5. eranskineko 5.1.1 *balorazioaren fitxa* atala).
- Jarreraren errubrika: Sekuentzia didaktikoaren bukaeran ebaluatu da. Ikasleek proiektu didaktikoan zehar erakutsitako arauen barneratzea, motibazioa, materialen erabilera, izandako jarrera eta interesa kontuan hartu dira (ikusi 6. eranskinaren 6.1.2 *jarreraren errubrika* atala).
- Trebetasunen errubrika: Proiektu didaktikoaren amaieran egin da. Ikasleek barneratutako gaitasunak, abilezia eta trebetasunak neurtzeko balio izan du (ikusi 6. eranskinaren 6.1.3 *trebetasunen errubrika* atala).

6.- EMAITZAK

Atal honetan ikasleek sekuentzia didaktikoaren hiru saioetako fitxetako jarduerak burutu ostean erantzundako emaitzak aipatuko dira.

Lehenengo saioa bi jarduera ezberdinez osatuta zegoen. Lehenengo dinamika fitxa moduan planteatutako galdetegi bat izan zen; bigarren ariketa, aldiz, ikasleei ausaz lau abiapuntu emanda, bakarka istorio bat sortzeko eginbeharra izan zuten.


Hasierako jarduerari dagokionez, galdetegiari alegia, 3 galderaz osatuta zegoen eta lehendabiziko galderak honela esaten zuen: “Urtean zehar irakurri ohi duzue? Zergatik irakurtzen duzue eta nondik datorkizue irakurtzeko zaletasuna?” (joan 4. eranskineko 4.1.1 *lehenengo galdetegia* atalera).

8 neska-mutilek (% 53.3) urtean zehar bakarrik eskolak irakurtzera behartzen dizkien liburuak irakurtzen dituztela adierazi dute eta gainera gehitu dute ekintza hau gustukoa ez dutela. Bestalde, 3 ikaslek derrigorrezko liburu horiek alde batera utziz oso gutxitan irakurtzen dutela aditzera eman dute, ikasleen hitzetan: “Eskolatik bidaltzerakoan bai, nire kontura batzutan irakurtzen dut baina ez sobera” edota “Bai, eskolatik eskatzen digute irakurtzea eta ahalaere irakurtzen dut pixka bat”.

11 ikasle horiek (% 26.7) albo batera utziz, 4 ikaslek beren aisialdian irakurtzea gustukoa dutela azaldu dute eta galderari erantzuterakoan arrazoi hauek idatzi dituzte: “Bai, irakurtzea gustatzen zaitelako. Nere amak aunitz irakurtzen duelako”, “urtean zehar irakurri ohi dut. Irakurtzen dut, aspertua egoten naizelako eta oso erraz egiten dudalako, eta ez dakit nondik datorkiten irakurtzeko zaletasuna, baina nere aitak ez du bat-ere irakurtzen orduan seguruaski amarengatik”, “bai. Gustatzen zaitelako eta neretzat dibertigarria delako” eta “ bai. Istorioa gustatzen bazait entretenigarria egiten zaidalako, eta nire ahizpak asko irakurtzen duenez liburu asko ditut aukeran”.

Galdetegi bereko bigarren galderarekin ikasleak aisialdian istorioak idazteko ohituraren inguruan galdetuak izan ziren. Oraingoan, 15 ikasleetatik 2 (% 86.7) izan dira ekintza hau beraien aisialdian burutzen dutela adierazi dutenak (irakurtzea gustukoa zutela adierazi zuten 4 ikasle horietako 2k) eta gainerako 13 kideek (% 13.3) istorioak idaztea gustukoa ez dutela aditzera eman dute. Arrazoi errepikatuenak idaztea aspergarria egiten zaiela, idazterakoan inspiraziorik izaten ez dutela edota gustukoa ez dutela izan dira (ikus 4. eranskineko 4.1.1 *lehenengo galdetegia* puntua).


AISSIALDIAN IDAZTEKO JOERA



1. Grafikoa: ikasleen % 86.7ak ez du bere aisialdian istoriorik idazten eta % 13.3ak aldiz, ekintza hau burutzeko joera dauka.

Jarduera honetako azkeneko galdera honela planteatua izan zen: izendatu irakurri, entzun edota gustukoak dituzun 10 istorio edota ipuin (erantzun guztiak ikusteko joan 4. eranskineko 4.1.1 *lehenengo galdetegia* puntura).

Guztira 64 istorio ezberdinen izenak azaldu dira, 64 istorioetatik 15en izenak behin baino gehiagotan agertu dira. Greg (19), Tea Stilton (15), Nur (10), Txanogorritxu (7) eta Geronimo Stilton (6) izan dira aipatuena eta istorio horiek lehen hezkuntzako haurrei begira idatzitako liburuak dira. Beraz, ikusi da ikasleei protagonistek abenturez beteriko pasarteak bizitzen dituzten istorioak direla gehien gustatzen zaizkietenak.



2. Grafikoa: 15 istorio izendatuenak, errepikatuenetatik gutxienetara.

Saio berean bigarren jarduera bat burutu zen. Dinamika honetan ikasleek *scratch*ekin sortutako 8 aldeko dado bat erabiliz lau jaurtiketa egin zituzten (taulen kopuruen bezain beste) eta jaurtiketa bakoitzean ateratako zenbakia tauletako batean idatzi behar izan zuten, horrela 4 tauletan zenbaki bakarria ezarriz. Tokatutako denbora, lekua, pertsonaia nagusia eta egoera abiapuntuak kontuan hartuta ikasleek era indibidualean istorio bat idatzi zuten.

A	DENBORA		B	LEKUA		C	PERTSONAIA NAGUSIA		D	EGOERA	
1	Paleolitoa	<input type="text"/>	1	Bera	<input type="text"/>	1	Super indarra <u>daukan</u> neskatoa	<input type="text"/>	1	Mundu Gerra	<input type="text"/>
2	Erdi Aroa	<input type="text"/>	2	Kairo	<input type="text"/>	2	Betaurrekoak dituen abenturazalea	<input type="text"/>	2	Klima aldaketa	<input type="text"/>
3	1945	<input type="text"/>	3	Kamberra	<input type="text"/>	3	Scott eta bere muskerra	<input type="text"/>	3	Gaixorik egotea	<input type="text"/>
4	Lehenengo astean	<input type="text"/>	4	<u>Bangkok</u>	<input type="text"/>	4	Elefante more	<input type="text"/>	4	Altxor baten bila	<input type="text"/>
5	Bihar	<input type="text"/>	5	<u>Bogota</u>	<input type="text"/>	5	Lau beso dituen surflaria	<input type="text"/>	5	Piratengandik ihesi	<input type="text"/>
6	Udako oporretan	<input type="text"/>	6	Berlin	<input type="text"/>	6	<u>Neskaz</u> mozorrotzea gustukoa duen mutila	<input type="text"/>	6	Gizakiok bizirauteko martera bidaiatu behar dugu	<input type="text"/>
7	2020	<input type="text"/>	7	Abuya	<input type="text"/>	7	Pisuz pasatuta dagoen pertsona	<input type="text"/>	7	Nobel saria irabazi du	<input type="text"/>
8	4078	<input type="text"/>	8	Delhi	<input type="text"/>	8	Ikasteko zailtasunak dauzkan gizakia	<input type="text"/>	8	Aberatsa izan arren ez da zoriontsua sentitzen	<input type="text"/>

1. Taula: Denbora, lekua, pertsonaia nagusia eta egoera abiapuntuak zehazteko 4 taulak.

Ikasle guztiek tokatu zitzaizkien lau abiapuntuak errespetatu eta beraien istorioetan erabili zituzten baina neska-mutilek idatzitako pasarteak oso laburrak izan dira, 8-10 lerro bitartekoak. Egoera askotan ikasleak lau abiapuntuak xehetasun gutxiarekin batak bestearekin lotzen ahalegindu dira eta horrek testuan gorputza eta amaiera landuegiak ez egotea ekarri du. Azkeneko lerroetan esandakoa honako istorio honetan (denbora, lekua, pertsonaia nagusia eta egoera abiapuntuak azpimarratuta ageri dira) ikusten da: “Bazen behin neskato bat Ahinoa izena. Kamberra bizi zen, bere familiarekin bizi zen bere ama Carmen izena zuen eta bere aita Josetxo, anai bat ere bazuen Mikel izena. 2020ko ekainaren 2an itsasontzi pirata bat itsasoan zegoen. Super neskatoa beraien gana joan zen. Aunitz ziren ezin zuen denen kontra eta ihes egin zuen bere etxera”.

Honen harira, aipatu beharra dago istorio guztiak dibertigarriak izan direla eta 15 istorioek bukaera zoriontsua izan dutela, adibidez; istorioko lapurrak kartzelan bukatuz, elefante morea Txinako gerlarien eskuetatik ihes egitea lortu du edota protagonistak gehien jateko ahalmena duen pertsonaren nobel saria irabaziz. Lehenengo saioko bigarren jarduerako emaitzak 4.eranskinen 4.1.2 *istorioak sortzen* puntuan ikusgai daude.

Bigarren saioari ekiteko ikasleak hiru hiruak batu ziren eta *scratchen* bidez sortutako jokoan ateratako zenbakia kontuan hartuta (1-5 bitarteko zenbakiak) zenbaki hori zeukan istorioaren hasierari bukaera bat eman behar izan zioten.

Lehenengo saioan bakarka sortutako istorioekin alderatuz, bigarren saioan idatzitakoak konplexuagoak eta luzeagoak izan dira. Hau da, ikasleek istorioaren hasiera errespetatuz eta taldekideen ideia eta proposamenak kontuan hartuz, gorputza eta bukaera landuagoa egitea lortu dute, horrela, istorioetan hiru zatiak ongi bereizteko aukera (hasiera, gorputza eta bukaera) dago eta mamian pertsonaien bizipenek xehetasun gehiago dituzte.


Banakako ekoizpenetan ikasleak abiapuntuetan tokatutako pertsonaiak erabiltzera mugatu ziren, oraingoan ikasleek *herensuge bat*, *Afrikan agintari den hitz egiten duen lehoi erregea* edota *pertsonaiaren lagun min egiten den Txispa izeneko txakurra* pertsonaia berriak sortu dituzte eta horrek istorioak pertsonalagoak eta zirrargarriagoak izatea ekarri du (ikasleek taldeka sortutako istorioak bere osotasunean irakurtzeko joan 4. eranskineko 4.1.3 *taldeka sortutako istorioak* puntura).

Hirugarren saioari dagokionez, saio honetarako prestatuta zegoen fitxa jarduera bakar batez osatuta zegoen, hots, 3 galdera zeuzkan galdetegi batez alegia (neska-mutilek galderen erantzunak ikusteko joan 4. eranskineko 4.1.4 *bukaerako galdetegia* atalera). Baina saio honetan landuko zena azaldu aurretik *meetzen* bidez taldeetako irakurleek hiruak sortu zituzten istorioak irakurtzeko tartetxoa izan zuten.

Galdetegiaren lehenengo galderak honela zioen: “Literaturak gure gizartean garrantzia daukala uste duzu? Erantzuna baiezkoa bada, zure ustez zertarako eta zergatik da garrantzitsua literatura gizakientzako?”

15 ikasleetatik 11k (% 78.6) literatura gure gizartearentzako garrantzitsua dela adierazi du eta 3 kidek (% 21.4) esparru honek pertsonengan eraginik ez daukalakoan daude. Ikasgelako neska batek “gauza batzuetarako bai eta beste batzuetarako ez” idatzi du baina ez du bere erantzunaren zergatia justifikatu eta horrek ez du garbi utzi aldeko edota kontrako ikuspuntua daukan, hori dela eta ikasle hau beheko grafikotik kanpo utzi da.

LITERATURAK GIZARTEAN GARRANTZIA DAUKA




3. Grafikoa: ikasleen % 78.6ak literaturak gizartean garrantzia daukala adierazi du eta % 21.4 aldiz ez da baieztapen honen aldekoa.

Ikasleei galderari emandako erantzuna arrazoitzea eskatu zitzaient, honako hauek izan ziren justifikazio deigarrienak: “Duela 1000 eta milioikaz urte ez genuen jakingo zer pasatu zen, ezta ez genuen solastuko ezta abestirik jakingo”, “bertzenaz kondairak ez zirelako esistituko”, “literaturak kontatzen badigu zer gertatzen den beste herrialdetan ipuinak kontatzen edo ipuinak idazten konturatzen gara nola bizi diren beste lekuetan, eta mundua hobeto ezagutzea lortzen dugu” edota “historia ezagutzeko eta eperientziak eta bizizpenak idazteko baliagarria da” (joan 4. eranskineko 4.1.4 *bukaerako galdetegia* atalera).

Galdetegi bereko bigarren galderean istorioak lehenengo aldiz idatzi zutenean bezala, bakarka eta abiapuntuak jolas batez emanez, edota istorioaren hasiera bat eskainiz eta hauek taldeka sortuz errazagoa egin zitzaient galdetuak izan ziren.

Ikastaldea osatzen duten 15 ikasleetatik 9k (% 69.2) bigarren aukera nahiago izan zuten, hau da, taldean burutua izan zena; aldiz beste 4 ikasleek (% 30.8), lehenengo aukerarekin erosoago egon zirela esan zuten. Ikasleetako batek adierazi zuen biak gustatu zitzaizkiola planteamendu ezberdinak zirelako eta ez da aukera bakar baten alde jarri. Beste ikasle batek “ez dakit” erantzun du, beraz, azkeneko honek ez du erantzuna garbia plazaratu eta hori dela eta bi ikasle hauek ez dira grafikoan kontuan hartu.

JARDUERAREN AUKERAKETA



4. Grafikoa: Ikasleen % 69.2ak istorioak taldeka sortutakoan errazagoa eta erosoagoa suertatu zaiola adierazi du. % 30.8ak bakarka lan egin duenean gusturago sentitu da.

Saio honetako jarduerako azkeneko galderan, ikasleei istorioak sortzerakoan erabili dituzten pertsonaiak gugandik oso ezberdinak diren edota gure antzekotasunak dauzkaten galdetu zaie. Era guztietako erantzunak egon dira; ikasle batek esan du bere istorioko protagonista erraldoi bat zela eta altuera hori dela eta pertsonekin alderatuz oso ezberdina delakoan dago. Ikasle batek azaldu du bere pertsonaia bihurria dela eta bera ordea pertsona lasai kontsideratzen da. Kide batek gehitu nahi izan du pertsonaia batzuk animaliak izan direla eta hauek, gainera, hitz egiteko gaitasuna zeukaten. Neska batek aipatu du bere pertsonaia nagusia mutikoa zela eta bera neska izanik istorioa beste sexuko pertsona baten abenturak eratzeko aukera izan duela (ikus 4. eranskinen 4.1.4 *bukaerako galdetegia* atala).


Hirugarren eta azkeneko saio honetan galdetegiaz gain ikasleei sekuentzia didaktikoa baloratzeko eta beraiek proiektuan zehar nola sentitu diren jakin ahal izateko balorazio fitxa bat betetzea eskatu zitzaie. Fitxa honek ikasleen eskutik hauen iritziz proiektuaren puntu indartsuak eta ahulak zein ziren eta honekin batera gehien eta gutxien gustatu zitzaiena zer zen jakitea bilatu da.

Ikasleak gehien kostatu zitzaiena esatera galdetuak izan zirenean, 4 ikaslek (% 26.7), lehenengo saioko galdetegian irakurtzea gustukoa zutela adierazi zuten ikasleek, garbi utzi zuten jarduera guztiekin oso eroso egon zirela eta hauek burutzeko ez zituztela inongo arazorik izan. Honen haria, ez zen ikaslerik egon ariketak egitea asko kostatu zitzaiola adierazi zuenik. 7 kidek (%46.7) esan zuten zailtasun handienak istorioak idazterakoan eta

buruan zeuzkaten ideiak orrian txertatzerakoan izan zituztela, ikasleen hitzetan: “gehien kostatu zaidana izan da idaztea zergatik niri kostatzen zait” edo “gehiena orientatzea istoriak osatzea oso zaila egiten zaidalako”. 3 ikaslek (% 20) taldean istorioari bukaera bat eman beharreko jardueran hau idazten hastea kostatu zitzaizela adierazi zuten, baina behin ideiak aukeratu eta antolatu ondoren dena ongi atera zelakoan duade. Beste ikasle batek (% 6.7) esan zuen “gehien kostatu zaidana galdetegia da”, baina ez zuen bere erantzuna arrazoitu.

IKASLEEI EGITEA GEHIEN KOSTATU ZITZAIENA

■ GALDETEGIA ■ BUKAERA ■ EZER ■ IDATZI




5. Grafikoa: Ikasleei proiektu didaktikoko saioetatik gehien egitea kostatu zitzaiena.

Gelako partaideei gutxien egitea kostatu zitzaizenaren inguruan, 6 ikaslek (% 40) adierazi zuten dena oso erraz egin zutela eta hori dela beraientzako ez zegoela ezer zailtasun handiegiarekin. 2 neskek (% 13.3) aipatu zuten gutxien kostatu zitzaiena ideak buruan antolatuta zituztela idazten hastea izan zela eta gehitu dute ordenagailuz idaztea gustatzen zaienez istorioak idazterako orduan gustura sentitu zirela. Mutil baten iritziz (% 6.7), istorioak bakarka idaztera bideratuak izan ziren jarduerak izan zen guztietatik errazena. Ildo honi jarraituz, ikasle batetzat (% 6.7) eramangarriena balorazioaren fitxa betetzea izan da baina ez du bere erantzunaren zergatia arrazoitu. 3 ikaslek (% 20) aipatu nahi izan zuten dadoa botatzea oso erraza suertatu zitzaizela eta 2 ikaslek (% 13.3) gehitu zuten orokorrean istorioak idaztea eta hauek idaztea erraza egin zitzaizela.

IKASLEEI EGITEA GUTXIEN KOSTATU ZITZAIENA

■ BALORAZIOA ■ BAKARKA ■ IDAZTEA ■ IDEIAK ■ DADOA ■ GUZTIA




6. Grafikoa: Ikasleei saioetatik errazena egin zitzaizkien alderdia ehunekoetan.

Seigarren mailako gela osatzen duten partaideen artean dadoa botatzea, lau abiapuntuekin bakarka istorioa osatzea eta taldean istorioa idaztea izan dira gehien gustatu zaizkien alderdiak; galdetegiak aldiz, ez dute hainbesteko arrakasta izan.

Taldeari saioak aurrera joan ahala istorioak sortzerako orduan hobekuntzak izan dituzten galdetu zitzaionean 15etik 9k (% 69.2) baiezko erantzuna eman zuten eta 4 ikaslek (% 30.8) jarduerekin hobekuntzarik nabaritu ez zutela aitortu zuten. Bi neska mutilek “ez dakit” erantzun dute eta hori dela eta beraien iritzia ez da garbi geratu. Baiezko erantzuna eman duten ikasleen arrazoiak honako hauek izan dira: “bai, ez badugu irakurtzen edo istoriak idazten gero egitean egingo ditugu gaizkigo”, “pizten zaitelako imaginazioa istorioak idazten dituztenean”, “bai, bakoitzak beria idazten duelako eta bigarrenin taldeka antolatzen ahal genulako”, “bai, nik uste dut hobekuntzak izan ditudala geroz eta gehiago praktikatu geroz eta gehiago hobetzen duzu”, “nik uste dut honek asko lagundu didala hobekuntza orduan eta askoz hobeto egingo dudala hemendik aurrera idatzi eta ipuinak sortu. Niri irakurketan baina gehiago idaztea errazagoa izango zaitela, ukurritzen zaizkiten istorioak idazteko.”


HOBKUNTZAK NABARITU



7. Grafikoa: ikasleen % 69.2ak proiektua bukatu ondoren istorioak idazterako ekintzan hobekuntzak nabaritu ditu eta % 30.8 ezezko erantzuna eman du.

Gehitu beharra dago 10 ikaslek (% 71.4) sekuentzia didaktikoak sormena lantzeko balio duela adierazi dutela eta 4 neska-mutilek (% 28.6) aditzera eman dute jarduera hauekin ez dela irudimena lantzen. Gainera, taldekideetako batek ez du erantzun nahi izan.

SORMENA LANTZEKO BALIO IZAN DU



8. Grafikoa: ikasleen % 71.4k sekuentzia didaktikoak sormena lantzeko balio duela adierazi du eta % 28.6 ez da baieztape honen aldekoa.

7.- ONDORIOAK

Emaitzak plazaratu ondoren, atal honetan, proiektu didaktikoari ezarri zitzaizkion helburu orokorra eta 3 helburu espezifikoak (azken hauengan egindako hipotesiak barne) bete diren ondorioztatuko da.

Gradu amaierako lan honen helburu orokorrari dagokionez, honela formulatua zegoen: esku hartze pedagogikorako proposamen bat diseinatu taldeka istorioak sortzeko estrategiaren erabilerarekin bideratuta lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleen sorkuntza prozesuak indartzea ahalbidetzen dituen. Proposamen didaktikoa gauzatu aurretik pentsatu zen taldeka istorioak lantzeko proposatutako strategiaren bidez ikasleek ideia bereizgarri eta propioez beteriko idazlanak sortuko zituztela. Behin proiektu didaktikoa aurrera eraman dela, ondorioztatu da, helburu hori bete egin dela, hau da, ikasleek taldeka lan egitera bideratutako jarduerekin eta abiapuntu zehatzak emanez (istorio baten hasiera), neska-mutilek libreki beraien ikuspuntu, ideiak eta batez ere sormena erabiliz istorioei bukaerak eman zizkieten.

Sekuentzia didaktiko honekin ikasleak istorioak taldeka idaztean sormenean bakarka egiten dutenean baino gehiago trebatzeko aukera dagoela ikusi nahi izan da. Emaitzak aztertuta ikusi da, ikasleak taldean lan egitean eta bakoitzak bere ideiak partekatzean, istorioak xehetasun gehiagorekin eta landuagoak izan direla, ahaztu gabe, era honetan ikasleek beraien irudimenetik eratorritako pertsonaia (herensugeak edota protagonistari laguntzen dion txakurra adibidez) eta egoera berri gehiago (Afrikara espedizioa eta bidaiari sortutako abenturak adibide gisa) plazaratu dituztela. Gehitu beharra dago ikasleek taldean jardun dutenean istorioak bakarka egiterakoan baino luzeagoak izan direla eta hauetan hasiera, gorputza eta amaiera hobeto bereizteko aukera zegoen. Hortaz, idazteko eta ideiak txertatzeko metodo hau esanguratsuagoa eta baliagarriagoa izan da ahaztu gabe istorio batek dauzkan atalak barneratzeko onuragarriagoa suertatu dela. Beraz, ikasleek taldean lan egiterakoan eta bakoitzak bere ikuspuntuak mahaigaineratzean, neska-mutilek irudimenaren lanketan trebatzeko eraginkortasun handiagoa dauka.

Helburu orokorraz gain, proiektu honetan 3 helburu espezifiko zehaztu ziren. Lehenengoak honela zioen: Proposamen pedagogikoa balioestea eta honek Lehen Hezkuntzako seigarren

mailako ikasleen sormenaren indarra baloratzea. Helburu hau kontuan hartuta, ezarri zen proposamen didaktikoak ikasleen sormena indartzeko baliagarritasuna izango zuela.

Ikasleek taldean lan egiterakoan bakarka egitean baino ekoizpen sortzaile pertsonal gehiago sortu zituzten, lehenagotik aipatutako herensugeak edota ikasle batek bere istorioko pertsonaiak Afrikara joan eta bertan agintari zen lehoi erregearekin hitz egin zuten abentura adibide gisa ezarriz. Beraz, sekuentzia didaktikoak ikasleen sormenaren indartzean eragin esanguratsua izan duela agerikoa da.

Honen harira, bigarren helburu espezifikoa bat aurkeztu zen, “Lehen Hezkuntzako seigarren mailako haurrengan sormen trebetasunak indartzera bideratutako talde lanean istorioak sortzeko estrategia erabilera erakustea” esaldipean. Honen inguruan hipotesi bezala atera zen diseinatutako estrategiekin ikasleek istorioak sortzerako prozesuan talde lanaren garapena bermatuko zela.

Esan beharra dago hipotesi hau guztiz bete egin dela; ikasleak bigarren saioko jarduera burutzeko (ikus 2. eranskineko 2.1.2 *bigarren saioko fitxa* atala) elkarrekin kohesionatu behar izan zuten. Taldekide bakoitzak funtzio espezifikoa bat zeukan (arduraduna, idaztea eta irakurlea) eta norbanakoak hura ongi betetzeko ardura izan zuen. Bestalde, jarduera ongi burutzeko ikasleek batak bestearen iritziak errespetatu eta hauek entzutera bideratuak izan ziren. Beraz, ikasleak taldean modu eraginkorrean lan egiteko elkarlana sustatu egin da helburu espezifikoa hau bermatuz.

Hirugarren eta azkeneko helburu espezifikoa bat planteatu zen eta honela zegoen formulatua: Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek literaturarekiko daukaten interes eta erabilera zehaztea eta deskribatzea proba diagnostiko baten bidez.

Saioak martxan jarri aurretik, proba diagnostikoaren bidez Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek literaturarekiko zeukaten interesa eta erabilera zehaztu eta deskribatzea lortuko zelako hipotesia egin zen. Helburu espezifikoa hau guztiz bete da, erantzuna gehiago sakontzeko, lehenengo eta hirugarren saioetako galdetegiaren galderen erantzunekin ikasleek literaturarekiko zeukaten zaletasuna eta honen garrantziaren inguruan zeukaten iritziak biltzea lortu ziren.

Berako Ricardo Barojako seigarren mailako ikasleek literatura lantzeko daukaten ohiturari erreparatzen bazaio, ikasgela honetako % 26.7ak bakarrik adierazi du irakurtzea gustukoa daukala eta beste % 20k aditzera eman du oso gutxitan irakurtzen duela. Egoera honen aurrean, ondorioztatu da ikasleriak ez daukala irakurtzeko ez joera ez grina handiegirik eta bakarrik eskolak liburu bat irakurtzera behartzen dituztenean irakurtzen dute. Honekin batera, ikasleen % 86.7ak ez du istorioak idazterakoan gozaten eta ez dira beraien aisialdian ekintza hau burutzearen alde jarri.

Ikasleen emaitzak aztertu ondoren ikusi da beraien kabura irakurtzerakoan lehen hezkuntzako hurrei begira idatzitako liburuak irakurtzea interesatzen zaiela. 15 liburu aipatuenean antzematen da pertsonaia nagusiek ehunka abentura bizitzen dituztela eta ikasleei alderdi honetako istorioak direla gehien gustatu eta erakartzen dizkietenak. Hori jakin eta gero, ikasleekin literatura gelan tratatzerakoan ikasleen interesak kontuan hartu behar dira saioak motibagarriagoak eta hurbilagoak izateko.

Irakurri eta idazteari erreparatuta, ondorioztatzen da ikasleek orokorrean ez daukatela literaturarekiko interes handiegirik eta bakarrik eskolako jarduerak burutu ahal izateko jotzen dute alderdi horietara. Hipotesi bezala, egoera honen eragileetako bat hezkuntza sistemak literaturaren trataera ekintza dibertigarri eta motibatzailean landu beharrean inposatu egin zaien jarduera bat bezala ikusten dutelakoan nago.

Azkeneko ondorio hau gehiago argudiatzeko, ikasleak literaturak gure gizartean garrantziaren inguruan galdetuak izan zirenean, neska-mutilen % 78.6ak baieztatu erantzuna eman zuen. Beraz, ikusten da ikasleek literatura aspektu garrantzitsu bat dela kontsideratzen dutela baina hauek, nahiz eta bere garrantziaz ohartu, modu dinamiko batean bideratuak ez badira ez dute beraien denbora librean ez idazten eta ez irakurtzen. Hortaz, argi dago literatura eskoletan modu ezberdin batean landu beharra dagoela.

8.- HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Behin proiektu didaktikoa aurrera eraman ondoren, sekuentzia didaktikoan zehar aurkitutako puntu ahulenei erreparatuz hauek ekiditea eta hobetzeko proposamenak azalduko dira.

Lehenengo saioko galdetegian ikasleek galderak modu labur eta sinplean erantzun zituzten eta horrek bertatik nahi bezainbeste informazio ez eskuratzea ekarri zuen. Beraz, planteatutako galderak fitxa moduan egin ordez gelan biltzar bat eginez burutzea proposatzen da. Horrela, ikasleek beraien iritziak eta ideiak guztien artean partekatuta, galdera hauei argudio eta konplexutasun handiagoarekin erantzungo dietela pentsatzekoa da.

Horrez gain, istorioak sortzeko bi jardueretan ikasleei ez zitzaaien luzera minimorik eskatu eta horrek hainbat ikasleek beraien istorioei erreparatu eta honetatik ondorioak atera ahal izateko laburregiak izatea ekarri zuen. Horregatik, atal honi dagokionez, komenigarria izango litzateke gutxienezko hitz kopuru bat ezartzea, zifra hori 150 hitzetara iristea gomendatuz.

Etorkizunari begira, proposamen didaktikoa hobetzeko, ikasleek literaturarekiko dauzkaten ohiturak eta zaletasunak ezagutzeko galderak fitxa moduan planteatu beharrean ikasgelan hauek ahoz erantzutea eta ikasleek beraiek arbelean idaztea (ondorioak ateratzeko bisualagoa izateko) esanguratsuagoa delakoan nago. Era honetan, jarduera dinamikoagoa izateaz gain neska-mutilekin hurbiltasuna bermatuko da eta horrek gelako giroa hobetzea ekarriko du. Ildo honi jarraituz, sekuentzia didaktikoak hobera egiteko ikasleek istorioak banaka eta taldeka idazteko jardueretan hitz kopuru minimo bat ezarri beharko litzateke, horrela, ikasle askok lerro gutxi batzuk bakarrik idaztea ekidin daiteke eta ikasleei esfortzu minimo bat egitea eskatuko zaie.

9.- BIBLIOGRAFIA

Aprendizaje cooperativo para una educación inclusiva. Desarrollo del programa PAC en un aula de Educación Primaria.pdf. (2011). Hemendik hartua: <https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/66191/Aprendizaje%20cooperativo%20para%20una%20educaci%c3%b3n%20inclusiva.%20Desarrollo%20del%20programa%20PAC%20en%20un%20aula%20de%20Educaci%c3%b3n%20Primaria.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Arteaga, E. (2008). Aproximación teórica al concepto de creatividad: un análisis creativo. Hemendik hartua:

[http://paideia.uprrp.edu/Articulos/Volumen%203%20Num.%201%20\(enero%20-%20mayo%202008\)/Aproximacion%20teorica%20al%20concepto.htm](http://paideia.uprrp.edu/Articulos/Volumen%203%20Num.%201%20(enero%20-%20mayo%202008)/Aproximacion%20teorica%20al%20concepto.htm)

Bas, A. (2015). *Talleres de escritura: De Grafein al taller de expresión I*. Facultad Ciencias Sociales.UBA. Buenos Aires.

Bamberger, J. (1982) Growing up prodigies: the midlife crisis. En D.H. Feldman (Ed). *Developmental approaches to giftedness and creativity*. San Francisco, Jossey Bass.

Baquedano, M. M., González, T. L., Catalán, M. L., eta Villaseca, S. S. (2011). Creatividad e Inteligencia en Interacción y Relación con el Rendimiento Académico Lector. *Investigaciones en Educación*, 11(2), 93-109.

Bermejo, R., Hernández, D., Ferrando, M., Soto, G. eta Sainz, M. (2010). Creatividad, inteligencia sintética y alta habilidad. Hemendik hartua: http://www.aufop.com/aufop/uploaded_files/articulos/1268617661.pdf.

Booth, T. (1996). A Perspective on Inclusion from England. *Cambridge Journal of Education*, 26(1), 87-99.

Cano, M.C. (2011). *Aprendizaje cooperativo en la universidad: una experiencia innovadora*. Congreso Internacional de Innovación Docente. Cartagena: Universidad politécnica de Cartagena, 1123-1140.

Cereghino Cabrera, B. (2016). *Estrategias de enseñanza para el desarrollo de la creatividad en los niños*. Hemendik hartua: <http://revistas.unife.edu.pe/index.php/educacion/article/view/1146>

Chacón Araya, Y. (2011). Una revisión crítica del concepto de creatividad. *Actualidades Investigativas en Educación*, 5(1). <https://doi.org/10.15517/aie.v5i1.9120>

Csikszentmihalyi, M. (1998). *Creatividad*. Barcelona: Paidós.

Csikszentmihalyi, M. (2006). *Creatividad. El flujo y la psicología del descubrimiento y la invención*. (2. ed.) Barcelona: Paidós.

Corbalán Berná, F. J., Martínez Zaragoza, F., Donolo, D. S., Alonso Monreal, C., Tejerina Arreal, M., eta Limiñana Gras, R. M. (2003). *CREA. Inteligencia Creativa. Una medida cognitivo de la creatividad*. Madrid: TEA ediciones.

De la Torre, S., eta Violant, V. (2006). *Comprender y Evaluar la Creatividad (Vol. 1)*. Málaga: Aljibe.

Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión internacional sobre la educación para el siglo XXI*. Madrid: Santillana, UNESCO.

Durán, D. eta Vidal, V. (2004). *Tutorías entre iguales: de la teoría a la práctica. Un método de aprendizaje cooperativo para la diversidad en Secundaria*. Barcelona: Grao.

Gavilán, P. (2017). *El trabajo cooperativo: una alternativa eficaz para atender a la diversidad*.

Hemendik hartua:

http://altascapacidadescse.org/cse/pdf/el_trabajo_cooperativo.pdf

Georges Perec (1992). La escritura-lectura. De Jesús Camarero. En *Anthropos. Revista de documentación científica de la Cultura*, No. 134/135. Barcelona. 15-20 orr.

Giménez, M (2014). *Aprendiendo Aprendizaje Cooperativo. Una experiencia en un aula universitaria*. Alcalá: Universidad de Alcalá.

Goñi, A. (2000). *Desarrollo de la creatividad*. Madrid: UNED.

Gras, R. M. L. (2008). *Cuando crear es algo más que un juego: creatividad, fantasía e imaginación en los jóvenes*.

Guamaní Lliquín, K. L. (2014). *La creación de cuentos infantiles y su influencia en la imaginación de los niños y niñas del primer año de educación básica de la escuela “Dr. Misael Acosta Solís” de Baños de Agua Santa provincia de Tungurahua*. Hemendik hartua:

<https://repositorio.uta.edu.ec/bitstream/123456789/7763/1/FCHE-PARVSEMI-571.pdf>

HEMMA, (2011). *Lotarakoan dastatzeko ipuinak (Ipuinak dastatzeko)*. Iruñea: Ttarttalo.

Johnson, D.W. eta Johnson, R. (1987). *A meta-analysis of cooperative, competitive and individualistic goal structures*. Hillsdale: Lawrence Erlbaum.

Johnson, D. W., Johnson, R. T. eta Holubec, E. J. (1993). *Cooperation in the Classroom*. Edina: Interaction Book Company.

Jones, K.A. y Jones, J.L. (2008). Making Cooperative Learning Work in the College Classroom: An Application of the “Five Pillars” of Cooperative Learning to Post-Secondary Instruction. *The Journal of Effective Teaching*, 8, 61-76. Hemendik hartua:

<https://www.niagara.edu/assets/assets/cctl/documents/JET.pdf>

Lab Ártica (s.f.). Hemendik hartua:

<http://www.jrotero.org/index.php/jro/lab/que-es-el-lab#>

Lehman, H. (1953) *Age and achievement*. Princeton: Princeton Univ. Press.

López Gaseni, M. (2009). Literatura-lantegien hastapenak maisu-maistrentzat. Hemendik hartua:

<https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/literatura-lantegiak>

López, M. (2008). *La integración de las habilidades sociales en la escuela*. Revista Electrónica de Intervención Psicosocial y Psicología Comunitaria. Costa Rica.

Lozano, J. N. (2008). *Mejora de la creatividad en el aula de primaria*.

Monreal, C. (2000). *Qué es la creatividad*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Novaes, M. (1973). *Psicología de la aptitud creadora*. Buenos Aires: Kapelusz.

Píriz, M. N. S., eta Etchebere, G. (2015). *Los cuentos infantiles clásicos y el Género. Aportes para la práctica docente*. 21.

Putnam, J. W. (1998). The process of cooperative learning. En J. W. Putnam (Ed.), *Cooperative learning and strategies for inclusion* (17-47 orr.). Baltimore: Paul H. Brookes Publishing Co.

Reyes, F. A. P. (2016). *Estrategias docentes que favorecen la creatividad en educación básica primaria del gimnasio henry fayol de la ciudad de bogotá*. Bogotá: 129.

Rinaudo, M. C. eta Donolo, D. (1999). *Creatividad en educación*. Córdoba, Universidad Nacional de Río cuarto.

Rodrigo, I., eta Rodrigo, L. (2012). Creatividad y Educación, el desarrollo de la creatividad como herramienta para la transformación social. *Prisma Social*, 311-351.

Serrano, J.M. (1996). El aprendizaje cooperativo. En Beltrán, J.L. eta Genovard, C. (Eds.), *Psicología de la Instrucción I. Variables y procesos básicos*, (orr. 217-244). Madrid: Síntesis.

Simonton, D. (1988) Creativity, leadership, and chance. En R. J. Sternberg (Ed) *The nature of creativity*. New York: Cambridge Univ. Press.

Simonton, D. K. (2000) Creative development as acquired expertise: Theoretical issues and an empirical test. *Developmental Review*, 20, 283-318.

Slavin, R.E. (1983). When does cooperative learning increase student achievement?. *Psychological Bulletin*, 94, 429-445.

Sternberg, R. J. eta Lubart, T. I. (1997). *La creatividad en una cultura conformista. Un desafío a las masas*. Barcelona: Paidós.

Taylor, C. W. (ED.). *The third (1959) University of Utah research conference on the identification of creative scientific talent*. Salt Lake City: University of Utah Press.

Tlusty, R.; McIntyre, S. eta Eierman, R. (1993). *Cooperative Learning in a College Chemistry Course*. Atlanta, American Educational Association.

Trigo, E. y de la Piñera, S. (2000). *Manifestaciones de la motricidad*. Barcelona: INDE Publicaciones.

Úriz, N. (1999). *El Aprendizaje Cooperativo*. Pamplona: Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra.

Vigotsky, L. (1986) *Imagination and creativity in the adolescent*. Chicago: University of Chicago.

Vigotsky, L. (1990). *Imagination and creativity in childhood*. *Soviet Psychology*, 28, 84- 96.

Villamizar Acevedo, G, A. (2012). La creatividad desde la perspectiva de estudiantes universitarios. REICE: Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, ISSN-e 1696-4713, Vol. 10, Nº. 2, 2012.

Wallach, M. A. eta Kogan, N. (1965). *Modes of Thinking in young children. A study of the creativity-intelligence distinction*. New York: Holt, Rinehart eta Winston, Inc.

10.- ERANSKINAK

AURKIBIDEA

1. ERANSKINA	43
1.1.- NAFARROAKO CURRICULUMAREKIKO LOTURA	43
1.1.1.- GAITASUNAK	43
1.1.2.- HELBURUAK	44
1.1.2.- EDUKIAK	48
2. ERANSKINA	49
2.1.- SEKUENTZIA DIDAKTIKOKO SAIOEN FITXAK	49
2.1.1.- LEHENENGO SAIOKO FITXA	49
2.1.2.- BIGARREN SAIOKO FITXA	54
2.1.3.- HIRUGARREN FITXAREN FITXA	59
3. ERANSKINA	61
3.1.- ISTORIO ORIGINALAK	61
3.1.1.- ERRALDOIA IZAN NAHI EZ ZUEN ERRALDOIA (Marc van Laere)	61
3.1.2.- AMONA ETA INKA KATUA (Héloïse)	64
3.1.3.- AZERITXO (Fraçoise Bobe)	67
3.1.4.- KIXKI PINGUINOA (Marc Van Laere)	69
3.1.5.- OREN JAUNAREN AREAZKO ERLOJUA (Héloïse)	71
4. ERANSKINA	74
4.1.- JARDUEREN EMAITZAK	74
4.1.1.- LEHENENGO GALDETEGIA	74
4.1.2.- ISTORIOAK SORTZEN	84
4.1.3.- TALDEKA SORTUTAKO ISTORIOAK	109
4.1.4.- BUKAERAKO GALDETEGIA	115
5. ERANSKINA	123
5.1.- BALORAZIOA	123
5.1.1.- BALORAZIOAREN FITXA	123
5.1.2.- IKASLEEN ERANTZUNAK	125
6. ERANSKINA	135
6.1.- ERRUBRIKAK	135
6.1.1.- ALE DIDAKTIKOA	136
6.1.2.- JARRERAREN ERRUBRIKA	138
6.1.3.- TREBETASUNEN ERRUBRIKA	140

1. ERANSKINA

1.1.- NAFARROAKO CURRICULUMAREKIKO LOTURA

Atal honetan planteatu den proposamen didaktikoak Nafarroako curriculumarekin daukan lotura plazaratuko da. Lehenik eta behin curriculumean ezarritako *gaitasuna* zein diren argituko dira (proiektuarekin lantzen direnak 6. eranskineko 6.1 atalean ikusgai daude). Helburuei dagokienez, sekuentzia didaktikora hurbiltzen diren *etapako helburuak* zein diren azalduko dira, honekin batera *euskal hizkuntza eta literatura-ren (D eredu) helburu orokorrak* baita ere. Hauez gain *ikasturteko helburuak* zein diren ere zehaztuko dira. *Helburu, eduki eta ebaluazio irizpide zehatzak* 6. eranskinaren 6.1 atalean agertzen dira eskuragarri. *Edukiei* dagokienez, unitate didaktikoaren bidez landuko diren eduki ezberdinak taula batean azaleratuko dira.

❖ 1.1.1.- GAITASUNAK

2006ko otsailaren 18an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak etengabeko prestakuntzarako gaitasun giltzarriei buruz emandako 2006/962/EC Gomendioa kontutan hartuta Nafarroako curriculumean Lehen Hezkuntzan zehar garatu beharreko zazpi gaitasun zehaztu ziren (ikus 1. taula).

1.taula. Proposamen didaktikoa: Lehen Hezkuntzako zazpi gaitasunak

	GAITASUNAK
ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN	<ol style="list-style-type: none">1.- Hizkuntza komunikazioa.2.-Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.<ol style="list-style-type: none">a.- Matematika gaitasuna.b.- Zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.3.- Gaitasun digitala.4.- Ikasten ikastea.5.- Gaitasun sozial eta zibikoak.6.- Ekimena eta ekintzailletza.7.- Kultura kontzientzia eta adierazpenak.

Hauez gain proiektu didaktiko honen bidez Nafarroako curriculumean ezarritako zeharkako elementu ezberdinak landuko dira:

2. Taula. Proposamen didaktikoa: Lehen Hezkuntzako zeharkako elementuak:

	ZEHARKAKO ELEMENTUAK
<p style="text-align: center;">ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN</p>	<p>a- Halaber, sormenetik, autonomiatik, ekimenetik, talde lanetik, norberegana konfiantzatik eta zentzu kritikotik abiatuta ekintzailtza garatu eta sendotzearen gaineko edukiak sartu dira, eta baita bide hezkuntzaren eta segurtasunaren eta arriskuei aurre hartzearen gaineko edukiak ere.</p> <p>b- Ikastetxeek, irakaskuntzako programazioen bitartez eta Hezkuntza Departamentuak xedatzen duenaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra eta genero indarkeriaren, indarkeria terroristaren eta indarkeria, arrazismo eta xenofobia forma oroaren prebentzioa sustatzen duten balioen garapena bultzatu beharko dute.</p> <p>c- Era berean, ikastetxeek ekintzak burutuko dituzte ezein izaera edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazio-ekintzak eta tratu berdintasunak berezko dituzten balioak sustatzeko helburuarekin eta horretarako, beste neurri batzuen artean, edozein diskriminazio mota suposatzen duten portaera eta eduki sexistak eta estereotipoak ekidinen dituzte.</p>

❖ **1.1.2.- HELBURUAK:**

☐ Etapako helburuak:

“60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatearen Lehen Hezkuntzako currucilumak ezartzen duena”-ri erreparatuta etapako helburu ezberdinak aurkitzen dira. Proiektu didaktikoarekin estutasun handienak dituztenak aukeratu dira.

3. Taula. Proposamen didaktikoa: Etapako helburuak

	ETAPAKO HELBURUAK
<p style="text-align: center;">ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN</p>	<p>a) Bizikidetzaren balioak eta arauak ezagutu eta preziatzea, haien arabera jokatzeko ikasi, herritar gisa jarduteko prestatu eta giza eskubideak eta gizarte demokratiko batek berezko duen aniztasuna errespetatzea.</p> <p>b) Taldeko nahiz bakarkako lanerako aztura, ikastean ahalegina egitekoa eta erantzukizunez aritzekoa, eta norberarengan konfiantza, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-nahia, interesa eta sormena ikasketa prozesuan, eta ekintzailatza.</p> <p>d) Kultura desberdinak eta pertsonen arteko desberdintasunak ezagutu, ulertu eta errespetatzea eta, halaber, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren berdintasuna, eta desgaitasunen bat duten pertsonak ez diskriminatzea.</p> <p>e) Gaztelania eta, bere kasuan, euskara modu egokian jakin eta erabiltzea eta irakurtzeko aztura bereganatzea.</p> <p>j) Era askotako irudikapen eta adierazpen artistikoak erabiltzea, sentikortasun estetikoak, sormena eta artelanez eta arte adierazpenez gozatzeko ahalmena garatzea, eta ikusizko eta ikus-entzunezko proposamenak gauzatzen hastea.</p> <p>m) Nortasunaren arlo guztietan eta besteekiko harremanetan ahalmen afektiboak eta indarkeriaren, edonolako aurreiritzi eta diskriminazioen eta estereotipo sexisten aurkako jarrera garatzea.</p>

❑ Euskal hizkuntza eta literatura-ren (D eredu) helburu orokorrak:

Euskal hizkuntza eta literatura-ren (D eredu) helburu orokorrak ez dira curriculumean agertzen eta hauek zehaztu ahal izateko seigarren mailan ezarritako ebaluazio irizpideei erreparatu behar izan zaie.

4. Taula. Proposamen didaktikoa: Helburu orokorra

	HELBURU OROKORRAK
<p>ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN</p>	<p>a) Ahozko testuen esanahi globala entzun eta ulertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutuz eta ideia, iritzi eta balore inplizituez eta esplizituez jabetuz. Ahoz laburtzea.</p> <p>b) Ahozko testu desberdinak ekoiztea: narrazio, deskribapen, argudio, azalpen, informazio eta jarraibide testuak.</p> <p>c) Modu naturalean sortutako komunikazioan edo gidatuan parte hartzea, diskurtsoan ordena espaziala, kronologikoa edo logikoa errespetatuz.</p> <p>d) Testuak erraz irakurtzea ozenki, edukiari egokitutako bolumen, intonazio, ahoskapen eta erritmoa erabiliz.</p> <p>e) Narrazio, deskribapen, argudio, azalpen, informazio eta jarraibide testuak eta testu ez-jarraituak ulertzea (iragarkiak, grafikoak, mapak eta horma-irudiak).</p> <p>f) Textu narratiboak, deskribapenezkoak, argudiozkoak, azalpenezkoak, instrukziozkoak eta informatzaileak sortu.</p> <p>g) Informazioa tratatzeko estrategiak ezagutu eta erabiltzen ditu.</p> <p>h) Ahozko eta idatzizko kodeak bereizten dituzten elementuak antzematea</p> <p>i) Esaldi edo testu batean izenak zuzentasunez erabiltzea.</p> <p>j) Perpausean izen sintagma, aditz sintagma eta haien funtzioak bereiztea.</p> <p>k) Euskalkiak ezagutu eta positiboki baloratzea.</p> <p>l) IKTak ikasteko tresna gisa erabiltzea.</p> <p>m) Zenbait generotako literatura testuak irakurtzea.</p> <p>n) Literatura testuak eta literaturakoak ez direnak bereiztea. Literatura baliabideak antzematea: konparazioa, metafora, pertsonifikazioa, hitzen errepikapena, aliterazioa, hiperbolea eta sinestesia. Literatura baliabide batzuk erabiltzea.</p> <p>ñ) Ahozko eta idatzizko literatura tradizioen generoak bereiztea: lirika, narrazioa eta drama.</p> <p>o) Ikasgelako eta ikastetxeko liburutegiak, IKTak eta hedabideak erabiltzea, informatzeko, jakin-mina handitzeko eta irakurketaz gozatzeko.</p> <p>p) Diskriminazioa adierazten duten ezaugarri eta esamoldeak jakin, aukeratu eta zuzentzen ditu ahozko eta idatzizko testu mota guztietan.</p>

□ Ikasturteko helburuak:

Ikasturte guztiko ebaluazio irizpideak zehaztu ondoren hurrengo urratsa ikasturteko helburuak zehaztea da. Sekuentzia didaktikoa Lehen Hezkuntzako seigarren mailako gelarako prestatua dagoenez, maila honetan ezarritako helburuak argitara emango dira.

5. Taula. Proposamen didaktikoa: Ikasturteko helburuak

	IKASTURTEKO HELBURUAK
<p style="text-align: center;">ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN</p>	<p>a- Ahozko testuen esanahi globala entzun eta ulertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzuz eta ideia, iritzi eta balore implizituz eta esplizituz jabetuz. Ahoz laburtzea.</p> <p>b- Ahozko testu desberdinak ekoiztea: narrazio, deskribapen, argudio, azalpen, informazio eta jarraibide testuak.</p> <p>c- Modu naturalean sortutako komunikazioan edo gidatuan parte hartzea, diskurtsoan ordena espaziala, kronologikoa edo logikoa errespetatuz.</p> <p>d- Testuak erraz irakurtzea ozenki, edukiari egokitutako bolumen, intonazio, ahoskapen eta erritmoa erabiliz.</p> <p>e- Narrazio, deskribapen, argudio, azalpen, informazio eta jarraibide testuak eta testu ez-jarraituak ulertzea (iragarkiak, grafikoak, mapak eta horma-irudiak).</p> <p>f- Textu narratzaile, deskribatzaileak, argudiozkoak, azalpenzkoak, instrukzio bidezkoak eta informatzaileak ekoiztea.</p> <p>g- Informazioa tratatzeko estrategiak ezagutu eta erabiltzen ditu.</p> <p>h- Ahozko eta idatzizko kodeak bereizten dituzten elementuak antzematea</p> <p>i- Esaldi edo testu batean izenak zuzentasunez erabiltzea.</p> <p>j- Perpausean izen sintagma, aditz sintagma eta haien funtzioak bereiztea.</p> <p>k- Euskalkiak ezagutu eta positiboki baloratzea.</p> <p>l- IKTak ikasteko tresna gisa erabiltzea.</p> <p>m- Zenbait generotako literatura testuak irakurtzea.</p> <p>n- Literatura testuak eta literaturakoak ez direnak bereiztea. Literatura baliabideak antzematea: konparazioa, metafora, pertsonifikazioa, hitzen errepikapena, aliterazioa, hiperbolea eta sinestesia. Literatura baliabide batzuk erabiltzea.</p>

	<p>ñ- Ahozko eta idatzizko literatura tradizioen generoak bereiztea: lirika, narrazioa eta drama.</p> <p>o- Ikasgelako eta ikastetxeko liburutegiak, IKTak eta hedabideak erabiltzea, informatzeko, jakin-mina handitzeko eta irakurketaz gozatzeko.</p> <p>p- Diskriminazioa adierazten duten ezaugarri eta esamoldeak jakin, aukeratu eta zuzentzen ditu ahozko eta idatzizko testu mota guztietan.</p>
--	---

❖ 1.1.3.- EDUKIAK

“Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena”-n azaleratzen den bezala euskal hizkuntza eta literatura (D eredu) arloko seigarren mailako edukiak bost bloke ezberdinetan agertzen dira. Taula batean proiektu didaktikoaren bidez landuko diren edukiak blokeetan plazaratuko dira.

6. Taula. Proposamen didaktikoa: Edukiak

	EDUKIAK
<p>ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN</p>	<p>1. BLOKEA: Ahozko komunikazioa: entzumena, ulermena, hitz egitea eta hizketan aritzea</p> <p>a.- Ahozko testuak entzun eta ulertzea, moten arabera: narrazio, deskribapen, argudio, azalpen, jarraibide eta informazio testuak, ikus-entzunezko hedabideetatik eta Internetetik hartuak (berriak, elkarrizketak, erreportajeak, eztabaidak, gaur eguneko gaietarako buruzko iruzkinak, eta abar).</p> <p>b.- Ahozko testuak tipologiaren arabera adieraztea.</p> <p>c.- Elkarreragin aktiboa eskola bizitzaren komunikazio egoera egituratueta.</p> <p>2. BLOKEA: Komunikazio idatzia: irakurmena</p> <p>a- Irakurtzeko modu desberdinak: ozenki, irakasleak gidatua eta iruzkindua eta isilekoa.</p> <p>b.- Adinari egokitutako testuak ulertzea. Testuei buruzko galderetarako erantzutea. Testuen laburpena.</p> <p>3. BLOKEA: Komunikazio idatzia: idazmena</p> <p>a- Testuak tipologiaren arabera idaztea. Diktaketak. Idazteko plana</p> <p>b.- Informazioa tratatzeko estrategiak erabiltzen ditu.</p> <p>4. BLOKEA: Hizkuntzaren ezagutza</p>

a- Ahozko eta idatzizko kodeen desberdintasunak antzematea.

b- Hiztegia hobetzen du ahozko eta idatzizko ekoizpenetan, izenak, adjektiboak eta aditzak nola eratzen diren jabetuta (eratorpena eta elkarketa). Eremu semantikoak. Gentilizioak. Maileguak, siglak eta laburdurak. Lokuzioak eta esaera zaharrak.

c.- Gramatika perpausak osatzen dituzten elementuen eta haien funtzioen ezagupena.

d.- Euskalkiak eta batua. Ikastetxeko hizkuntza aniztasuna.

e.- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera, testuak idazten ikasteko tresna gisa.

5. BLOKEA: Literatura - hezkuntza

a- Literatura testua, bide gisa komunikatzeko, atseginerako, jostetarako, entretenimendurako, beste mundu, denbora eta kulturak ezagutzeko, ikasteko eta antolatzeke, eta egunerokoan sortzen diren problemak konpontzeko.

b- Literatura: literatura baliabide batzuen ezagupena.

c.- Ahozko eta idatzizko literatura tradizioen generoak: lirika, narrazioa eta drama.

d- Liburutegia, Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta hedabideak erabiltzea.

f- Diskriminazioa adierazten duten ezaugarri edo esamoldeak ezagutzea.

2. ERANSKINA

2.1.- SEKUENTZIA DIDAKTIKOKO SAIOEN FITXAK:

Jarraian sekuentzia didaktikoa osatzen duten 3 saioen fitxak plazaratuko dira:

➤ 2.1.1.- Lehenengo saioko fitxa.

ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN



DATA:

TALDEA:

IKASLEA:



1.- GALDETEGIA:

Erantzun honako galdera hauei. Erantzuterako orduan BAI edo EZ erantzun beharrean argudiatzea eskatzen zaizue.

- Urtean zehar irakurri ohi duzue? Zergatik irakurtzen duzue eta nondik datorkizue irakurtzeko zaletasuna? ZEHAZTU

- Zuen aisialdian istorioak idazten dituzue? Zergatik? ZEHAZTU

- Izendatu irakurri, entzun edota gustukoak dituzun 10 istorio edota ipuin.

- | | |
|-----|------|
| 1.- | 6.- |
| 2.- | 7.- |
| 3.- | 8.- |
| 4.- | 9.- |
| 5.- | 10.- |

2.- ISTORIOAK SORTZEN:

-ARGIBIDEA:

[AUSAZKO ZENBAKIAK](https://scratch.mit.edu/projects/369079878) esaldian sakatuta edota interneten <https://scratch.mit.edu/projects/369079878> sartzen bazarete, estekak dado elektronikoko batera bideratuko zaituzte. Behin programaren aurrean zaudetela bandera **BERDEAN** klik egin eta dadoa martxan jartzeko “ESPAZIO” izeneko teklatura sakatu beharko duzue.

Lehenengo jarduera burutzeko dadoa bota beharko duzue. Lehenengo jaurtiketan 1etik 8ra bitarteko zenbaki bat aterako zaizue, zenbaki horren arabera A taulako lauki zurian “X” bat ezarri beharko da.

- ADIBIDEA:

Lehenengo jaurtiketan 2 zenbakia atera bazaizue honela ezarri beharko da.

A	DENBORA	
1	Paleolitoa	<input type="text"/>
2	Erdi Aroa	<input checked="" type="text" value="X"/>

JARDUERA:

A) Dadoa erabiliz A, B, C eta D ataletan atera zaizkizuen emaitzak beheko tauletako lauki zurietan “X” batekin idatzi.

A	DENBORA		B	LEKUA	
1	Paleolitoa	<input type="text"/>	1	Bera	<input type="text"/>
2	Erdi Aroa	<input type="text"/>	2	Kairo	<input type="text"/>
3	1945	<input type="text"/>	3	Kamberra	<input type="text"/>

4	Lehengo astean	<input type="text"/>	4	Bangkok	<input type="text"/>
5	Bihar	<input type="text"/>	5	Bogota	<input type="text"/>
6	Udako oporretan	<input type="text"/>	6	Berlin	<input type="text"/>
7	2020	<input type="text"/>	7	Abuya	<input type="text"/>
8	4078	<input type="text"/>	8	Delhi	<input type="text"/>

C	PERTSONAIA NAGUSIA		D	EGOERA	
1	Super indarra daukan neskatoa	<input type="text"/>	1	Mundu Gerra	<input type="text"/>
2	Betaurrekoak dituen abenturazalea	<input type="text"/>	2	Klima aldaketa	<input type="text"/>
3	Scott eta bere muskerra	<input type="text"/>	3	Gaixorik egotea	<input type="text"/>
4	Elefante more	<input type="text"/>	4	Altxor baten bila	<input type="text"/>
5	Lau beso dituen surflaria	<input type="text"/>	5	Piratengandik ihesi	<input type="text"/>
6	Neskaz mozarrotzea gustukoa duen mutila	<input type="text"/>	6	Gizakiok bizirauteko martera bidaiatu behar dugu	<input type="text"/>
7	Pisuz pasatuta dagoen pertsona	<input type="text"/>	7	Nobel saria irabazi du	<input type="text"/>
8	Ikasteko zailtasunak dauzkan gizakia	<input type="text"/>	8	Aberatsa izan arren ez da zoriontsua sentitzen	<input type="text"/>

B) Atera zaizkizuen *denbora*, *lekua*, *pertsonaia nagusia* eta *egoera* kontuan hartuta istorio bat sortzeko eta honi izenburu bat ezartzeko momentua iritsi da. Ez da luzera minimo ez maximorik ezarriko, beraz, nahi duzuen bezala antolatu dezakezue zuen istorioa.

➤ 2.1.2.- Bigarren saioko fitxa:

ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN



DATA:

TALDEA:

IKASLEA:



1.- BUKATU DEZAGUN ISTORIOA:

- ARGIBIDEA:

Sakatu [ZENBAKIAK](https://scratch.mit.edu/projects/384552403) esaldian edota interneten <https://scratch.mit.edu/projects/384552403> sartzen bazarete, estekak ausazko zenbakien joko elektroniko batera bideratuko zaituzte. Behin programaren aurrean zaudetela bandera **BERDEAN** klik egin eta aplikazioa martxan jartzeko “ESPAZIO” izeneko teklatura sakatu beharko duzue. Ekintza honen bidez 1etik 6ra bitarteko zenbaki bat aterako zaizue.

JARDUERA:

A) Ausaz tokatu zaizuen zenbakiak jarraian datorren istorioetako batera joatea egingo dizue. Konturatu zareten bezala bertan bakarrik istorioaren hasiera agertzen da, orain zuen eginbeharra hasiera horri bukaera eta izenburu bat ematea da.

- AUKERAK:

Gogoratu !!! bakarrik tokatu zaizuen zenbakiaren istorioa osatu behar duzue.

1) Aspaldi, herri txiki eta polit baten inguruko mendi batean, erraldoi bat bizi zen. Benetako erraldoia zen, erraldoia izateko ere arras handia. Baina, beste erraldoi asko ez bezala, hura bihotz onekoa zen. Hitz gutxitan esateko, erraldoi atsegina eta zen eta haurrak maite zituen.

Zoritxarrez, hurrek ez zekiten hori, eta erraldoien beldur ziren. Norbaitek gaiztakeria handi bat egiten zuenean edo mutiko edo neskatoren batek gurasoek esandakoa egiten ez zutenean, gurasoek honela esaten zioten:

-Txintxo portatzen ez bazara, erraldoia etorriko da zu eramatera!

Horregatik, beldu handia zioten erraldoiari eta gure erraldoia oso goibel zegoen.

Noizean behin, mendiko etxea utzi eta herrira jaisten zen, poltsikoak gozokiz beteta zituela. Lehenengo etxeetara inguratzean honela esaten zuen:

-Kaixo haurrak, neu naiz, zuen adiskide erraldoia. Zatozte egun on esatera.

Baina erraldoiaren ahots lodia entzun bezain laster, hurrek korrika alde egiten zuten eta etxean ezkututzen ziren. Gurasoek ate eta leiho guztiak ixten zituzten. Kaleak hutsik gelditzen ziren eta herrian inor ez zela bizi ematen zuen.

Erraldoia, harekin inork hitz egin nahi ez zuelako oso triste, mendiko gaztelura itzultzen zen burumakur.

2) Aspaldiko garaietan, animaliek ere hizketan zekitenean, baso barrenean amona zahar, ilezuri eta bizkar oker bat bizi zen. Oso behartsua zen eta egunero egun zatiak biltzen zituen basoan, neguan sua egin ahal izateko. Bakarrik bizi zen, beno, bakar bakarrik ez, Inka izeneko pertsiar katu dotorearekin bizi baitzen. Katu ederra zen, baina ederra bezain harroa eta alferra. Amonak pizten zuen tximiniako suaren aurrean etzanda igarotzen zuen eguna. E zuen ehizan egiten, ez zuen korrika egiten eta ez zuen inoiz marraka egiten; etxeko andrea etsita zegoen jada.

Laztandu egiten zuen, etxea bero izaten zuen beti, jaten ematen zion, kuxinik onena ematen zion... dena alferrik. Amona katuaren menpe bizi zen, miretsi egiten zuen, asko maite zuen. Katuak barre egiten zion amonari eta lasai-lasai bizi zen. Nahi zuena lortzen ez zuenean, altxatu, gorputza luzatu eta txabolatik irteten zen, ardatza baino tenteago. Orduan, amona erreguka hasten zitzaion:

-Arren Inka, ez utzi ni hemen bakarrik, esan zer nahi duzun eta egingo dut.

-Fut ! - erantzuten zion katuak harro harro.

3) Azeritxo gose da bere ezkutalekuan. Zulotik irten eta kanpoan guztia zuri-zuri dago, egurrak estalita. Berak ere neguko jantzia darama. Elurraren zuriarekin nahasten den arren, berehala ezagutu dugu, mutur zorrotza eta ile ilunagoaz inguratutako begi biziak nabarmenak baitira.

Elur hautsa bigun-biguna da. Jolasteko gogoia du Azeritxoak, korrika eta jauzi egiteko gogoia. Ostikoak emanaz bere inguruko elurra harrotu du. Gustura dabil eta gose dela ahaztu zaio. Lurretik atxatzean, jolasak egarritu egin duela ohartu da eta elur apur bat hartu du ahoan, egarria asetzeko. Bat-batean, bere gordeleketik hurbil ordura arte inoiz ikusi gabeko lorratza ikusi ditu.

Hurbildu eta zorua usaindu du. Lorratzek utzitako zuloan hanka sartu du, nolakoan diren ikusteko. “Bai handiak direla ... Norenak izango ote dira? Nor pasa ote da emendik?... Jarraitu egingo diet norenak diren ikusteko !”

4) Herri txiki bateko kale ilunetan haurtxo bat zebilen, kalean gora eta behera, artilezko txapela buruan zuela. Ez zuen txintik ere esaten. Baina zer egiten zuen haurrak kalean halako hotzarekin? Ohean egon beharko zukeen lotan. Baina ohean lo egiteko etxea izatea beharrezkoa da eta goiz hartan Julen, haurra eta Patxi, bere aita, etxerik gabe gelditu ziren, izan ere, aita aspaldian lanik gabe baitzegoen.

Hala ere, mutikoa ez zegoen triste: egun batean zortea izango zutela pentsatzen zuen. Patxik bere buruari esaten zion “hotz handia egiten du. Julen gaixotu egingo da. Sar gaitezen etxe batean”. Oso ilun zegoen baina Patxik hurbilean zegoen etxe baten ate txikiaren sarraila irekitzea lortu zuen. Julen dardarka zegoen, hotzak eta beldurrak jota. Apur bat lotsatuta ere bazegoen. Zortzi urte baino ez zituen arren, ondo zekien ez zirela zuzen jokatzeko ari.

5) Neska txiki-txiki bat korrika zebilen hondartza handi handi batean... Hondartza oso luzea zen eta ezinezkoa zen begiekin non amaitzen zen ikustea, itsasoa bezain luzea baitzen. Hondartzaren inguruan zuhaitzak, loratutako sasiak eta harkaitz handiak zeuden.

Hondarretan korrika zihoan neskato txikia bakar-bakarrik zegoen eta negarrez hasi zen, ezin baitzituen gurasoak aurkitu. hantxe zeuden, uraren bazterrean eserita... Baina neskatoa urrutiratu egin zen ohartu gabe, eta ez zuen inor ikusten. A, bai, norbait bia..., han urrutian,

itsasoan barneratzen zen harkaitz baten gainean norbait ikus zezakeen, irudi txiki bat... Azkar-azkar hurbildu zen... Baina zer? ez zirudien pertsona bat...

6) Aspaldian, animaliek ere hizketan zekitenean, bazen agure zahar-zahar bat, Oren jauna izenekoa. Hareazko erlojua zaintzen igarotzen zituen egunak eta gauak, herritar guztiek denbora nola igarotzen zen ikusi ahal izateko. Gogor egiten zuen lan, lo ere ez zuen egiten, harea goitik behera behar bezala erortzen zela egiaztatu behar baitzuen. Oren jaunaren zeregina erlojuari buelta ematea zen, erresumako biztanle guztiei ordu bat, bi, hiru... igaro zirela esateko.

Baina, egun batean, hego haizeak adina urte zituen agurea lokartu egin zen erlojuaren aurrean. Orduan hareak erori eta erori jarraitu zuen, baina, azkenean, Oren jauna erlojuari buelta eman ez zioenez, denbora gelditu egin zen.

➤ 2.1.3.- Hirugarren saioaren fitxa:

ISTORIOAK TALDEAN SORTZEN



DATA:

TALDEA:

IKASLEA:



2.- BUKAERAKO GALDETEGIA:

Erantzun honako galdera hauei. Saiatu zaitezte galderari erantzuterakoan argudioak ematen.

- Literaturak gure gizartean garrantzia daukala uste duzu? ZERGATIAK

Erantzuna baiezkoa bada, zure ustez zertarako eta zergatik da garrantzitsua literatura gizakientzako?

- Zuen istorioak sortzerakoan, lehenengo istorioa idatzi zenutenean bezala abiapuntuak jolas batez emanez edota istorioaren hasiera bat eskainiz egin zaizue errazagoa? Zergatik?

- Sortu dituzun pertsonaiak gure antzekotasunak dituzte edota gugandik oso ezberdinak dira? Zergatik?

3. ERANSKINA

3.1.-ISTORIO ORIGINALAK:

Jarraian istorio originalak beraien osotasunean plazaratuko dira:

3.1.1.- ERRALDOIA IZAN NAHI EZ ZUEN ERRALDOIA (Marc Van Laere):

Aspaldi, herri txiki eta polit baten inguruko mendi batean, erraldoi bat bizi zen. Benetako erraldoia zen, erraldoia izateko ere arras handia. Baina, beste erraldoi asko ez bezala, hura bihotz onekoa zen. Hitz gutxitan esateko, erraldoi atsegina eta zen eta haurrak maite zituen.

Zoritxarrez, hurrek ez zekiten hori, eta erraldoien beldur ziren. Norbaitek gaiztakeria handi bat egiten zuenean edo mutiko edo neskatoren batek gurasoek esandakoa egiten ez zutenean, gurasoek honela esaten zioten:

-Txintxo portatzen ez bazara, erraldoia etorriko da zu eramatera!

Horregatik, beldu handia zioten erraldoiari eta gure erraldoia oso goibel zegoen.

Noizean behin, mendiko etxea utzi eta herrira jaisten zen, poltsikoak gozokiz beteta zituela. Lehenengo etxeetara inguratzean honela esaten zuen:

-Kaixo haurrak, neu naiz, zuen adiskide erraldoia. Zatozte egun on esatera.

Baina erraldoiaren ahots lodia entzun bezain laster, hurrek korrika alde egiten zuten eta etxean ezkututzen ziren. Gurasoek ate eta leiho guztiak ixten zituzten. Kaleak hutsik gelditzen ziren eta herrian inor ez zela bizi ematen zuen. Erraldoia, harekin inork hitz egin nahi ez zuelako oso triste, mendiko gaztelura itzultzen zen burumakur.

Egun batean, zerbait egin behar zuela erabaki zuen. Haurrak gehiago ez beldurtzeko moduren bat egon behar zuen... Baina zein? Ideia bat bururatu zitzaion: erraldoi txiki bihurtu behar zuen, erraldoi txiki-txiki...Urrutitik ikusten zituen gainerako gizakien neurri berbera izatea lortu behar zuen. Haurrak ez ziren gehiago beldurtuko bera hurbiltzen zenean eta haiekin jolastuko zen eta gozokiak emango zizkien. “Horixe egingo dut!, pentsatu zuen. Baina ez zen batera erraza izango. Orduan, basoan bizi zen sorgin zahar batez oroitu zen;hiru egun beharko zituen haren etxera iristeko. Inork laguntzekotan, sorgin hark lagunduko zion.

Berehala abitu zen. Luze ibili zen eta mendi eta haran asko igaro zituen. Errekak zeharkatu zituen. basoko sastraken artean bidea ireki zuen... Baina ez zegoen amore emateko prest: txikia izan nahi zuen! Hirugarren egunean sorginaren bizitokia zela zioten tokira iritsi zen. Erraldoia sorginari deika hasi zitzaion: "Kaixo sorgin andrea ! Hor al hago?, baina inork ez zion erantzuten... Isiltasuna erabateko zen bere inguruan. Erraldoiak asko makurtu behar izan zuen txabolaren barrualdean inor zegoen begiratzeko..., baina hutsik zegoen!

Sorginak erraldoi hurbiltzen sentitu zuen, haren urrats bakoitzak lurra dardarka jartzen baitzuen eta, izututa,baso itxian ezkutatu zen.

-Sorgin andrea !-oihukatu zuen berriro erraldoiak-. Ez beldurtu , ez dinat minik egin nahi. Gainerako pertsonak duten neurrikoa izaten laguntzea besterik ez dinat nahi,haurrak ni ikustean beldur ez daitezen.

Hitz horiek entzutean,sorgina basotik irten zen poliki-poliki.Erraldoiari begira-begira gelditu zetzaiola eta, asmo txarrik ez zuela ohartzen , honela esan zion:

-Entzun.Laguntzen saiatuko nauk.Itxaron hemen unetxo bat liburuan begiratuko diat,ea txikiagotzeko formularen bat aurkitzen dudan.

Eta hitz horiek esan ondoren,desagertu egin zen bere txabolan barruan.

Erraldoiari itxaropena piztu zitzaion.Azkenean garaiera normala izango zuen. Goroldioaren gainean etzan eta sorgina itzultzeko zain geratu zen. Bien bitartean,sorginak ontzi beltz handi batean belarran eta beste osagai misterioitsu batzuk nahastu zituen,eta sutan jarri zituen, erraldoiak txikiagotzeko edabe magikoa prestatzeko.

Gero berak bakarrik ezgutzen zituen hitz misterioitsu batzuk esan zituen eta txabolatik irten zen, esanez:

-Hementxen daukak.Edan ezak edabe hau eeta dena konponduko duk. Baina arazo bat zuten...Erraldoia oso-osoa handia zen eta sorgina oso-osoa txikia,eta ez zen iristen edabea ematea. Eskailera luze baten bila joan behar izan zuen eta, edaba ez erortzeko, kontu handiz mailaz garoino igo zen,erraldoiaren buruaino iritsi arte.

-Ireki ezak ahotzar hori-esan zion sorginak-eta hartu edabe zurrutakada bakar batean.

Erraldoiak oso-osorik edan zuen.Une horretan bertan txikiagotzen ari zela ohartua zela, gero eta txikiago,gero eta txikiago...Eskailera erre beherantzaz egiten hasi zen, basoaren erdian

lurreaino erori arte. Sorgina sasi artera erori zen! Gure erraldoiak erraldoi izareri utzi zion ,
ba...baina orain nanoa zen!

Zer gertatu zen? Hauxe baino ez: sorgina, erraldoia horren handia zela ikusita, osagaiak
neurrietan nahastu egin zen eta dosi handiegiak erabili zituen.Gure erraldoia ez zegoen oso
gustura...Edo gure nanoa esan beharko genuke?

-Sorgin andrea -esan zion-,hau gehiegizkoa dun,erremedio bat prestatu behar didan pertsonak
duten neurri bera izateko. Eta oraintxe bertan gainera. Ondo ulertu al didan?

Sorginak, eskaleratik erortzean hartutako zartakoaz erdi zorabiatuta oraindik,bere paperen
artean erremedioaren bila hasi zen,nanoaren neurria handitzeko. Azkenean, aurkitu zuen
konponbidea eta beste edabe bat prestatu zuen.Baina sorginak burua nahastuta zuen
kolpearen ondorioz eta ez zuen asmatu oraingoan ere. Erraldoia hazi egin zen berriro, ez
lehen hainbat, baina oraindik handiegi zen!

Azkenean, erraldoiak edabe berak prestatzea erabaki zuen. Sorginak prestatutako bi edabeak
hartu eta nahastu egin zituen,eta bai erremedio egokia lortu ere. Nahasketa hura zurrutada
bakarrean hartu...glub.glub.glub,glub...eta,azkenean,neurri arrunta zuela eta besteak
bezalakoa zela ohartu zen.

Sorginari eskerrak eman ondoren,jauregirantz abiatu zen berriro.Baina etxera iritsi zenean,
beste zailtasun batekin egin zuen topo.Ezinezkoa zen giltza gazteluko ate handian sartzea:
ezin zen sarrailaraino iritsi! Zorionez,katuaren zulotik sartu ahal izan zen.Berehala,
poltsikoak gozokiz bete zituen eta herriraino zihoan bidea hartu zuen. Zorionsua zen
benetan! Hurrek ez zuten alde egingo bera ikustean!

Lehenengo etxeetara hurbildu zenean, ezin zuen bere begiez ikusten zuena sinetsi:
herritarrek,ihes egin beharrean, egun on esaten zioten irribarrez edo bere ondotik igarotzean
begiratu ere ez zioten egiten! Benetan besteen antzeko zen azkenean!

Bere inguruan haur talde handi bat bildu zen eta gozokiak banatu zizkien; horrenbeste izutzen zituen erraldoia bera zela esan zienean, hurrek ez zioten sinetsi...Baina azkenean bere jantziak eta ahotsa ezagutu zituzten.

Ordutik aurrera, gure “erraldoia” maiz joaten da herrira eta haurrak berehala hurbiltzen zaizkio, orain adiskide onak baitira.

3.1.2.- AMONA ETA INKA KATUA (Héloïse):

Aspaldiko garaietan, animaliek ere hizketan zekitenean, baso barrenean amona zahar, ilezuri eta bizkar oker bat bizi zen. Oso behartsua zen eta egunero egun zatiak biltzen zituen basoan, neguan sua egin ahal izateko. Bakarrik bizi zen, beno, bakar bakarrik ez, Inka izeneko pertsiar katu dotorearekin bizi baitzen. Katu ederra zen, baina ederra bezain harroa eta alferra. Amonak pizten zuen tximiniako suaren aurrean etzanda igarotzen zuen eguna. E zuen ehizan egiten, ez zuen korrika egiten eta ez zuen inoiz marraka egiten; etxeko andrea etsita zegoen jada.

Laztandu egiten zuen, etxea bero izaten zuen beti, jaten ematen zion, kuxinik onena ematen zion... dena alferrik. Amona katuaren menpe bizi zen, miretsi egiten zuen, asko maite zuen. Katuak barre egiten zion amonari eta lasai-lasai bizi zen. Nahi zuena lortzen ez zuenean, altxatu, gorputza luzatu eta txabolatik irteten zen, ardatza baino tenteago. Orduan, amona erreguka hasten zitzaion:

-Arren Inka, ez utzi ni hemen bakarrik, esan zer nahi duzun eta egingo dut.

-Fut ! - erantzuten zion katuak harro harro.

“Zer egin dezaket katu hau zoriontsuagoa izateko?”, galdetzen zion amonak bere buruari. “Urrea izango banu, gauzarik ederrenak eskainiko nizkioke, jakirik goxoenak, eta zoriontsu izango litzateke eta marraka egingo luke. Nire etxea oso itsusia da horren katu ederrarentzat”. Egun batean amona tximinia pizteko egur bila atera zen basora, baina luzaroan ibili ondoren zuhaitz baten azpian eseri zen, oso nekatuta baitzegoen. “Ezin dut gehiago”, pentsatu zuen bere artean, “Lan hau gogorregia da eta nire oinak oso nekatuta daude”. Gauak hartu zuen eta amona, zuhaitzaren azpian eserita, negarrez hasi zen. “Zer gertatuko ote zaio Inkari berotzeko egurrik eraman ezin badiot?” Tximiniaren aurrean egotea oso atsegina du. Hementxe hilko

nahiz agian...” Malkoek zuhaitzaren sustraiak busti zituzten eta, bat-batean, ahots bat entzun zuen:

-Ez negarrik egin, arren!

Amona, harrituta, ingurura begira hasi zen.

-Nork esan du hori?- galdetu zuen amonak, inor ikusten ez zuelako larrituta.

-Neu izan naiz, Pagoa ! Nire sustraiei gainean eserita zaude.

-Ene ! Hitz egiten dakien zuhaitz bat ! Ez dut orain arte halakorik inoiz ikusi - egin zuen oihu amonak.

-Bai, badakit, harrigarria da, baina basoaren bihotzean zaude eta hemen guztiok hitz egiten dugu ! Oso triste ikusten zaitut.

-Pago jauna, nire oinak oso nekatuta daude, oso zaharra naiz eta ez dakit etxera itzultzeko gai izango naizen. Gainera, Inka nire katua zin izango dut.

-Bai, badut zure berri. Askotan ikusi izan zaitut nire ondotik igarotzen. Inka zure katua ere ondo ezagutzen dut; katu gaiztoa, alferra eta harroa da; hemen, basoan, ez da inor hartaz fio. Gehiegi arduratzen zara katu horretaz.

- Askok maite dut, besterik ez ! - erantzun zion amonak.

-Bai, bai, jakina ! Baina berak maite ahal zaitu? Zure etxe ondoko sutondoa maite du hark, eta ematen diozun janaria, besterik ez. Ziur ez duela inoiz marraka egiten, ezta laztantzen duzunean ere.

-Bai, egia da, Pagoa jauna, nola dakizu hori?

-Erraza da asmatzen ! Bere buruan baino ez du pentsatzen ! Bai, oso katu ederra da, baina hori ez da nahikoa !

- Pago jauna, zer egin dezaket nire katuak marraka egin dezan? Horixe da nire desiorik handiena.

- Pago zahar bat baino ez naiz, ezin dizut aholkurik eman. Gauza asko ikusi ditut urte luze hauetan. Zuk zeuk aurkituko duzu konponbidea, ikusiko duzu.

Pagoaren adarretan pausatutako hontzak bien arteko elkarrizketa entzun zuen, eta pentsatzen zuena esan zien:

-Pago jaunak arrazoa du, amona. Inka katua gaiztoa da. Hartu egiten du baina ez du ezer ematen. Ez da bidezkoa, ez du zure maitasuna merezi. Askotan ikusi izan dut txoriei era arratoiei gaitz egiten, azeria bera baino maltzurragoa da.

-O !- esan zuen amonak- Zuen hitzek oso triste utzi naute. Baina zer egin dezaket? Agian, aberatsa izango banintz zorionsuagoa izango litzateke.

-Maite ez bazaitu, amona, ez du inoiz marraka egingo, eta maitasuna ez da diruarekin erosten. Edo maite zaitu edo ez - esan zuen hontzak.

Elkarrizketak ondoan zegoen kuku bat iratzarri zuen, eta hark ere bere iritzia eman zuen:

-Nire ustez, amona, bigunegia zara berarekin ! Kanpoan utzi beharko zenuke maizago; ziur horrela zure etxeko sutondoa eta prestatzen diozun janaria gehiago estimatu lituzkeela. Ikusiko duzu, pozik itzuliko da etxe barrura eta marraka egingo du.

-Agian arrazoi izango duzu ! - erantzun zion amonak-. Baina une honetan ez naiz etxera itzultzeko gai, oso nekatuta nago.

-Entzun - esan zion hontzak -. Aterpe bat ezagutzen dut hemen inguruan eta gaua bertan igaro dezakezu, indarberritzeko; jarraitu niri, hemendik gertu dago eta. Amonak eskerrak eman zizkien Pago jaunari eta kukuari, eta poliki-poliki altxatu zen.

Adarrez eta hostoez egindako aterpe batera eraman zuen. Amona indarrrik gabe zegoen eta goroldio bigunaren gainean etzan zen.

-Lasai egin lo, amona ! Guk zainduko zaitugu ! Ondo lo egin !

Amonak, lasaiago, eskerrak eman zizkion hontzari eta berehala lokartu zen. Hurrengo goizean, ñau txiki batzuk esnatu zuten. Begiak irekitzean, bere ondoan etzanda basakatu zoragarri bat ikusi zuen. Katua geldi-geldi geratu zen eta marraka egiten hasi zen gustura. Amona oso pozik jarri zen katua marraka egiten ikustean, eta etxera eramango zuela pentsatu zuen.

-Oso katu atsegina zara, Felix deituko zaitut ! Nire etxera etorriko zara eta bertan zorionsu biziko zara.

Felix katuak atzetik jarraitu zion amonari etxeraino. Etxera hurbiltzen ari zirenean, Inkari deika hasi zen:

-Inka, Inka !

Baina ez zen inondik inora agertzen. Orduan, ordea, amona ez zen negarrez hasi. Felixez arduratu zen eta tximiniaren ondoan ezarri zuen. Berehala, Felix katua marraka egiten hasi zen, gustura suaren epelean, eta amona oso pozik jarri zen. Gau horretan bertan, Inka katua atean atzamarka hasi zen. Amonak atea ireki zion:

-Azkenean Inka ! Non ibili zara?

Katua harro-harro amonaren aurretik jaramonik egin gabe igaro eta tximiniaren aurreko kuxinerantz abiatu zen. Baina, arrano pola !, bere kuxinean ilezko bola txiki zatar bat zegoen ! Ileak tente-tente jarri zituen orduan eta marruka hasi zen. Katu txikia izutu egin zen eta amonaren gona atzean ezkutatu zen.

-Nahikoa da, Inka ! -esan zuen, haserre, amonak.

Inkak haserre begiratu zion Felixi eta, atzaparrak aterata, nere kuxina berreskuratu nahi izan zuen nola edo hala, baina amonak honela esan zion:

-Ez, Inka, nahikoa da ! Hemendik aurrera beste kuxin baten gainean egingo duzu lo ! Katua zor eta lor geratu zen eta amonari begiratu zion, haren hitzak ezin sinetsita. Katu zatar horrek bere tokia kendu zion eta amonak jada ez zuen maite !

Inka katua, lotsatuta, etxe hartan bere agintea amaitu zela ohartu zen, eta tximiniatik apur bat urrutiago zegoen beste kuxin baten gainean etzan zen. Oso inozoa izan zela pentsatu zuen, ez baitzion bere maitasuna adierazi. Baina amonaren maitasuna berreskuratu nahi zuen, eta ez zion Felixi bere tokia kentzen utziko, ez horixe !

Amona Inkaren eta Felixen artean zegoen aulki bakarrean eseri zen eta berehala marraka eder eta ozen bat entzun zuen. Inka zen ! Azkenean marraka egiten ari zen ! Beraz, maite zuen ! Arrazoi zuen hontzak, maitasuna ez da diruarekin erosten ! Handik aurrera amona eta bi katuak zoriontsu bizi izan ziren.

3.1.3.-AZERITXO (Françoise Bobe):

Azeritxo gose da bere ezkutalekuan. Zulotik irten eta kanpoan guztia zuri-zuri dago, egurrak estalita. Berak ere neguko jantzia darama. Elurraren zuriarekin nahasten den arren, berehala ezagutu dugu, mutur zorrotza eta ile ilunagoaz inguratutako begi biziak nabarmenak baitira.

Elur hautsa bigun-biguna da. Jolasteko gogoia du Azeritxoak, korrika eta jauzi egiteko gogoia. Ostikoak emanez bere inguruko elurra harrotu du. Gustura dabil eta gose dela ahaztu zaio. Lurretik altxatzean, jolasak egarritu egin duela ohartu da eta elur apur bat hartu du ahoan, egarria asetzeko. Bat-batean, bere gordeleketik hurbil ordura arte inoiz ikusi gabeko lorratza ikusi ditu.

Hurbildu eta zorua usaindu du. Lorratzek utzitako zuloan hanka sartu du, nolakoan diren ikusteko. “Bai handiak direla ... Norenak izango ote dira? Nor pasa ote da hemendik?... Jarraitu egingo diet norenak diren ikusteko !”, pentsatu zuen Azeritxoak.

Lorratzen bidea hartu du eta bide luzea egin du, aztarna misteriotsu horien atzetik. Baina, bat-batean, desagertu egin dira ! Zerura begiratu du. Hegan alde egin ote du? Ez, Azeritxo laku izoztu baten ertzean dago eta horregatik desagertu dira. “Beste alderaino zuzen-zuzen joaten banaiz, ziur berriro aurkituko ditudala !”, pentsatu zuen azeri azkarrak.

Lakua gurutzatzen hasi da. Baina erdi-erdian gelditu da. Bihotza taupaka hasi zaio. Burua ere taupaka ari zaiola iruditzen zaio. “Eta izotza apurtzen bada?” Beldurrezko hotzikarak astindu du. “Ez, ez !”, esan dio bere buruari, begiak itxita. Lasaitzeko, arnasa hartu du barru-barrutik.

Hanka puntetan zeharkatu du lakua, pisua arintzeko eta izotza ez apurtzeko. Eta, azkenean, beste alderaino iritsi da. Arrazoi zuen, hantxe baitaude berriro lorratzak elurretan. Beldurra alde batera utzi eta bideari jarraitu dio.

Lautada handi bat zeharkatu du eta, harrituta, urrutian lorratzak oso txikiak ikusten direla ohartu da. Eseri egin da apur batez, eta pentsatzen jarri da:

“Nork egin dezake horren bidaia luzea?”... Nora joan ote da?”

Azeritxoak ez du etsi. Lorratzak nora doazen jakin nahi du, eta bideari ekin dio.

Baina urratsak basoan murgildu dira berriro, eta bere ezkutalekurantz doazela ohartu da. Haserre bizian dago. Hainbeste ibili horretarako !

“Batetik bestera jiraka-biraka ibili ondoren, berriro nire etxeraino joan behar ahal dut?”

Arnasa hartu eta, lasaituz, etxeraino itzuli da. Hurbiltzean, zuloaren aurrean pakete gorri-berde bat dagoela ohartu da ! Begiak zabal-zabal eginda, zintaren gainean idatzitako zilarrezko hitzak irakurtzen saiatu da. Ozenki esan ditu:

-Gagon zoriontsuak !

Orduan, Olentzeroren urratsei jarraitu diela ohartu da ! Ez zekien azeriek ere Gabonetan opariak jasotzen zituztenik !

3.1.4.- KIXKI PINGUINOA (Marc Van Laere):

Neska txiki-txiki bat korrika zebilen hondartza handi handi batean... Hondartza oso luzea zen eta ezinezkoa zen begiekin non amaitzen zen ikustea, itsasoa bezain luzea baitzen. Hondartzaren inguruan zuhaitzak, loratutako sasiak eta harkaitz handiak zeuden.

Hondarretan korrika zihoan neskato txikia bakar-bakarrik zegoen eta negarrez hasi zen, ezin baitzituen gurasoak aurkitu. hantxe zeuden, uraren bazterrean eserita... Baina neskatoa urrutiratu egin zen ohartu gabe, eta ez zuen inor ikusten. A, bai, norbait bia..., han urrutian, itsasoan barneratzen zen harkaitz baten gainean norbait ikus zezakeen, irudi txiki bat... Azkar-azkar hurbildu zen... Baina zer? ez zirudien pertsona bat... Txori handi bat zen ! Baina bai txori arraroa ! Ez zuen hegorik..., beno, hego txiki-txiki bi baino ez ! Eta bere bi hanka txikien gainean zutik zegoen. Horregatik, urrutitik, neskatoak pertsona bat izan zitekeela pentsatu zuen.

Animalia neskatoa bezain garaia zen, eta gorputz beltza zuen, baina aurrealdea zuria, edo gris antzekoa, eta moko laranja-laranja.... Atsegina zirudien.

Neskatoa hurbildu egin zitzaion eta honela esan zion:

-Egun on. Nor zara? Ez zaitut ezagutzen.

Animaliak adeitsu erantzun zion:

-Pinguino bat naiz eta Kixki dut izena.

-Ez zaitut inoiz hondartzan ikusi -esan zion orduan neskatoak.

-Oraintxe heldu naiz -erantzun zion pinguinoak hanken gainean urrats txiki eta barregarriak eginez. -Oso urrutitik nator, behe laino artean galdutako herrialde batetik; han beti hotz handia egiten du eta ez dago ez zuhaitzik eta ez lorerik... Izotza besterik ez dago; beno, eta hartz zuriak, itsas txakurrak eta pinguinoak..., eta inuit batzuk eta Akawak aztia.

-Baina nola iritsi zara honaino? -galdetu zion neskatoak.

Pinguinoak bere abenturaren berri eman zion orduan:

-Duela zenbait egun, nire adiskideengandik urrunduta nintzen apur bat. Badakizu, pinguino asko gara eta... Bat-batean, nire azpiko izotz zati handia izotz bankutik askatu egin zen eta kostaldetik urrunduta zen berehala, behe laino itxian desagertuz... Egun eta gau asko igaro ditut non nengoen ez nekiela. Gero eta hotz gutxiago egiten zuen. nire izotz zatia urtzen hasi zen eta gero eta txikiagoa zen, gero eta txikiagoa... Eta atzo gauean ez nuen ia zutik egoteko tokirik, baina, zorionez, hondartza hau ikusi nuen eta igerian etorri nintzen.

Neskatoak adi-adi entzun zituen pinguinoaren hitzak, eta honela esan zion:

-Entzun, nire gurasoak han ikusten ditut. Haiengana joan beharra dut. Baina nahi baduzu adiskideak izan gaitezke eta bihar elkar gaitezke berriro hementxe:

-Bihar arte -erantzun zion pinguinoak.

Gurasoekin elkartzean, honela galdetu zioten jakin-minez:

-Norekin ari zinen hizketan harkaitz horretan?

-Pinguino batekin -erantzun zien alabatxoak -Kixki du izena eta nire laguna da.

-Pinguino bat..., horixe besterik ez genuen behar !

Hurrengo egunean, ordu berean, neskatoa Kixkirengana joan zen, agindu bezala. Luze eta zabal aritu ziren, elkarri euren bizimoduen berri ematen: adiskideei buruz, egiten zituzten gauzei buruz, gustatzen zitzaizkien gauzei buruz... hitz egin zuten. Egunero elkartzen ziren, eta adiskide min egin ziren.

Baina, egun batean, honela esan zion pinguinoak neskatoari:

-Ohartu ahal zara egunak gero eta laburragoak direla? Gero eta hotz handiagoa egiten du... Laster iritsiko da negua. Orduan itsasoa izoztu egingo da, eta ni neure etxera itzuliko naiz, izotzen herrialdera.

-Baina ezin zara joan ! -esan zuen negarrez neskatoak-. zu beti nire ondoan egotea nahi dut. Nire adiskidea zara eta nire etxera etortzea nahi dut.

-Ondo dakizu hori ezinezkoa dela -erantzun zion Kixkik-. Pinguinoak ez dira neska txikien etxeetan bizi. Baina ez tristatu.... Ideia bat bururatu zait... Nire herrialdean, inuitak bizi diren tokian, Akawak izeneko azti bat ezagutzen dut. Berak lagunduko digu... Utzi negar egiteari. Agur esan behar diogu elkarri, baina itzul zaitez bihar berriro.

-Agur, Kixki -esan zuen neskatoak malko artean.

-Ez esan agur, gero arte baizik.

Hurrengo egunean, Kixkik esan bezala, toki berera itzuli zen neskatoa. Baina Kixkirekin elkartzen zen tokian pelutxezko pinguino bat aurkitu zuen, Kixki bezain ederra. Benetakoa zirudien ! Akawak aztiak pinguinoaren eskaera entzun zuen eta pelutxezko panpina bihurtu zuen, hala, neskatoak etxera eraman ahal izateko eta beti elkarrekin egoteko.

Harrezkero, Irati eta Kixki elkarrekin daude beti. Logela berean egiten dute lo eta, askotan, bere beso txikien artean estutzen du. Mila kontu esaten dizkiote elkarri eta ohe zuri txikian elkarrekin egiten dute lo.

3.1.5.- OREN JAUNAREN HAREAZKO ERLOJUA (Héloïse):

Aspaldian, animaliek ere hizketan zekitenean, bazen agure zahar-zahar bat, Oren jauna izenekoa. Hareazko erlojua zaintzen igarotzen zituen egunak eta gauak, herritar guztiek denbora nola igarotzen zen ikusi ahal izateko. Gogor egiten zuen lan, lo ere ez zuen egiten, harea goitik behera behar bezala erortzen zela egiaztatu behar baitzuen. Oren jaunaren zeregina erlojuari buelta ematea zen, erresumako biztanle guztiei ordu bat, bi, hiru... igaro zirela esateko.

Baina, egun batean, hego haizeak adina urte zituen agurea lokartu egin zen erlojuaren aurrean. Orduan hareak erori eta erori jarraitu zuen, baina, azkenean, Oren jauna erlojuari buelta eman ez zioenez, denbora gelditu egin zen.

Oren jauna esnatzen saiatu ziren guztiak, baina horrenbeste urtetako nekearen ondoren, ezinezkoa zen hura esnatzea. Erresuman nahastu egin ziren gauza guztiak. Patxi okinak ezin

zuen ogia egin, ez baitzekien zenbat denbora izan beharko zuen labean eta erre egiten baitzitzaien beti.

Matias, Peru eta Loren berandu iristen ziren beti eskolara, Tomas irakaslea ere guztiz nahastuta zebilen. Ez zekien eskola orduak noiz hasten eta amaitzen ziren...

Klara, Inaxi eta Baxili amek ere ez zekiten noiz joan behar zuten eskolara seme-alaben bila edo bazkaria noiz prestatu behar zuten. Zurrumurrua zabaldu zen eskolan:

-Denbora gelditu egin da ! Denbora gelditu egin da ! Izugarria da ! Oren jauna lokartu egin da!

Denbora gelditu zenean, Gilen erregeak berak ere arazoak izan zituen; erresumako jauntxo guztiak bildu zituen eta honela esan zien:

-Herritar leialak, ondo dakizuenez, denbora gelditu egin da, Oren jauna lokartu egin da ! Zaharregia da eta ordezeko bat bilatu behar diogu. Konfiantzazko pertsona bat behar dugu, ausarta, Oren jaunaren tokia hartzeko. Lan hori egiteko gai dena Ixabel nire alabarekin ezkonduko da !

Filemonek, erregearen bando joleak, erresuma osoan zabaldu zuen berria. Honela esaten zuen kale eta bazter guztietan:

-Entzun, entzun, herritar guztiok ! Gilen errege zintzoa Oren jaunaren ordezekoaren bila dabil. Eta berria oihukatu ondoren, danborra jotzen zuen, tarrapatatan-tarrapatatan !

Egun batean, Xabierrek, gazteluko atetarako giltza handi bat egiten ari zen errementariak, bando jolearen mezua entzun zuen. Ondo pentsatu ondoren, Gilen erregearengana joatea erabaki zuen.

Erregearen jauregira eraman zuten berehala, eta Xabier errementariak honela esan zion erregeari:

-Errege jauna, denbora berriro martxan jar dezaket ! Baina nire erara !

-Baina... -esan zuen erregeak-, zer esan nahi du "nire erara" horrek?

-Oraingoz ezin dizut besterik esan, maiestate, baina zazpi ilargialdi itxaroten baduzu azalduko dizut !

-Zazpi ilargialdi? -erantzun zuen erregeak-. Denbora gehiegi da hori ! Ezin gara ordura arte denborarik gabe bizi !

-Ez dugu beste erremediorik, maiestate, baina ziur nago itxarotea mereziko duela !

-Horren ziur baldin bazaude, Xabier, itxaron egingo dut, baina gauzak ondo irtetea espero dut

-Gauza bat baino ez dizut eskatuko, maiestate: zazpigarren ilargialdia iristean, ilunabarrean, bidali iezadazu zure karroza.

Ilargialdi bat igaro zen, gero bi, hiru... Bere lantegi txikian, Xabier errementariak atsedetik gabe lan egiten zuen, mozten, zerraz ebakitzen, egurra lantzen, gau eta egun hantxe aritzen zen, eta inor ez zen enbarazu egitera ausartzen. Zurrumurrua zabaldu zen berriro:

-Xabier errementariak harrokeria handia izan du; irtenbide bat eskaini zion erregeari, baina, momentuz, Oren jaunak lokartuta jarraitzen du ! Xabier ez da denbora berreskuratzeko gai izango, betiko galdu dugu !

Zurrumurruei jaramonik egin gabe, Xabierrek mozten, zerraz ebakitzen eta egurra lantzen jarraitu zuen gau eta egun...

Iritsi zen azkenean zazpigarren ilargialdia eta erregearen karroza Xabierren lantegiaren aurrean gelditu zen, bizilagunak ahozabalik utziz. Xabier lantegitik irten zen besapean poltsa misterioitsu bat zuela eta azkar-azkar karrozan sartu zen.

Gilen erregea zain zegoen, urduri, eta gorte osoa bildu zuen. Erregearen aurrean aurkeztu zen Xabier, poltsa bitxia eskuetan zuela.

-Ondo da, mutiko, poltsa horretan ezkututzen duzuna ikusteko irrikaz nago. Oso soinu arraroa egiten du !

Erregearen begirada adiaren aurrean, Xabier errementariak tramankulu xeble bat atera zuen.

-Oooo ! -esan zuten guztiek.

-Bai tramankulu arraroa ! Zergatik egiten du soinu hori? Eta zer dira zenbaki handi horiek inguruan biraka dabiltzan orratz xeble horiek? Ez da txantxa bat izango, ezta?

Une horretan tramankuluaren kanpaitxoak jotzen hasi zen, lehenengo kanpaikada bat, gero bi, gero hiru... zazpi aldiz jo arte. Ding, ding, ding !

-Ooooo! -esan zuen jendeak, beldurtuta atzeraka eginez.

Xabier errementaria, oso lasai, erregearengana hurbildu zen eta honela esan zion.

-Ez izan beldurrik, maiestate, ez da sorginkeria. Makina honi esker, denbora dugu berriro ere!
Hona hemen nire asmakuntza berria, denbora zatitzeko makina ! Zazpiak dira orain eta, laster zazpi eta erdiak joko ditu, eta gero zortziak, eta horrela gauerdia arte.

Gilen erregea gau osoa erlojuaren tiki-taka eta kanpaitxo entzuten egaro zuen eta, azkenean, egia zela ohartu zen. Denbora berreskuratu zuten ! Hurrengo egunean, gorte osoa bildu zen eta honela esan zion:

-Herritar maiteok, oso pozik nago. Denbora berreskuratu dugu eta, aurrerantzean, denbora zatitzeko makinari erloju deituko diogu !

Xabier errementaria zoriondu zuten guztiek eta opari asko jaso zituen. Erregeak ere bere agindua bete zuen: bere alaba Ixabelekin ezkontzeko baimena eman zion. Handik aurrera Denboraren Printzea deitu zioten.

4. ERANSKINA

4.1.1.- JARDUEREN EMAITZAK:

Atal honetan unitate didaktikoa aurrera eramaterakoan saioetako dinamiketan ikasleek emandako erantzunen informazioa eskuragarri egongo da.

➤ 4.1.- LEHENENGO GALDETEGIA:

Ikasleek lehenengo saioan burututako galdetegiaren erantzunak.

GALDETEGIA:

Erantzun honako galdera hauei. Erantzuterako orduan BAI edo EZ erantzun beharrean argudiatzea eskatzen zaizue.

- Urtean zehar irakurri ohi duzue? Zergatik irakurtzen duzue eta nondik datorkizue irakurtzeko zaletasuna? ZEHAZTU

Ez. Ez dut irakurtzen eta ez zait gustatzen irakurtzea easpergarria iruditzen zait irakurtzea horregatik ez dut irakurtzen.

- Zuen aisialdian istorioak idazten dituzue? Zergatik? ZEHAZTU

Ez. Ez zait asko gustatzen istorioak idaztea luze egiten zait.

- Izendatu irakurri, entzun edota gustukoak dituzun 10 istorio edota ipuin.

1.- Geronimo Stilton

2.- Wonder

3.- Tea stilton

4.- Greg

5.- Nur

6.- Txanogorritxu

7.- Hiru txerritxoak

8.- Harry Potter

9.- Peter Pan

10.- Greg: Atrapados en la nieve

GALDETEGIA:

Erantzun honako galdera hauei. Erantzuterako orduan BAI edo EZ erantzun beharrean argudiatzea eskatzen zaizue.

- Urtean zehar irakurri ohi duzue? Zergatik irakurtzen duzue eta nondik datorkizue irakurtzeko zaletasuna? ZEHAZTU

bai. irakurtzen dut obligatzen didatelako.

- Zuen aisialdian istorioak idazten dituzue? Zergatik? ZEHAZTU

bai. oso kreatiboa naizelako.

- Izendatu irakurri, entzun edota gustukoak dituzun 10 istorio edota ipuin.

1.- Zipi y zape

2.- gizajo baten egunkaria

6.-txanogorritxo

7.-txokolatzeko etxea

3.- los forasteros del tiempo

8.-peter pan

4.- superlópez

9.-erpurutxo

5.- ahatetxo itsusia

10.-bambi

GALDETEGIA:

Erantzun honako galdera hauei. Erantzuterako orduan BAI edo EZ erantzun beharrean argudiatzea eskatzen zaizue.

- Urtean zehar irakurri ohi duzue? Zergatik irakurtzen duzue eta nondik datorkizue irakurtzeko zaletasuna? ZEHAZTU.

Bai, urtean zehar liburuak irakurtzen ditut. Baina beti ez da gustatzen zaidalako, batzuetan irakurtzea esaten didatelako.

- Zuen aisialdian istorioak idazten dituzue? Zergatik? ZEHAZTU

Ez. Ez zaidalako idaztea gustatzen.

- Izendatu irakurri, entzun edota gustukoak dituzun 10 istorio edota ipuin.

1.- Geronimo Stilton

6.-Nur

2.- Tea Stilton

7.- Nabukodonosor

3.- Wonder

8.- Kandiskiren istorioa

4.- Greg

9.- Geronimo Stilton 4

5.- El trueno

10.- Geronimo Stilton 7

